

Ingurumen iraunkortasuna garapenerako lankidetzan

Gipuzkoako lurraldearen azterketa



Iker Etxano Gandariasbeitia (koordinatzailea)
Irene Jiménez-Zumalde
Izaskun Bengoechea Ibarrondo
Irati Labaien Egiguren



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACION INTERNACIONAL
NAKARTEKO LANBIDEZTA ER GARAPENAREN BURELKO BARRERA INSTITUTUA

Ikerketa honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren finantzamendua izan du.



Ingurumen iraunkortasuna garapenerako lankidetzan. Gipuzkoako lurraldearen azterketa
Egileak: Iker Etxano Gandariasbeitia (koordinatzailea). Hegoa Institutoa, EKOPOL ikerketa-taldea, Ekonomia Aplikatua Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. **Irene Jimenez-Zumalde.** Ikertzailea eta doktoregaia, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. **Izaskun Bengoechea Ibarondo.** Hegoa Institutoa. **Irati Labaien Eguiguren.** Hegoa Institutoa. Ekonomia Aplikatua Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten lagun guztiei, bai galdetegiari erantzunez bai elkarrizketetan.

2024



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU • Zubiria Etxea Eraikina
Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo
Tel.: 946 017 091

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 017 464

UPV/EHU • Arabako Campuseko Liburutegia
Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 014 287

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.
ISBN: 978-84-19425-23-2



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

Taulen aurkibidea	4
Grafikoen aurkibidea	5
Akronimoen zerrenda	6
Laburpen exekutiboa	7
1. Sarrera	11
1.1. Testuingurua eta justifikazioa	13
1.2. Helburuak eta irismena	15
1.3. Egitura	16
2. Metodologia eta iturriak	17
3. Azterketa	31
3.1. Lankidetzaren politikaren arau eta plangintza esparrua	33
3.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoa	33
3.1.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoa	36
3.2. Lankidetzara bideratutako funts publikoak	39
3.2.1. EAEko administrazio publikoek bideratutako funtsak	39
3.2.2. Gipuzkoako administrazio publikoek bideratutako funtsak	41
3.2.3. EAEko administrazio publikoek Gipuzkoako GGKEetara bideratutako funtsak	43
3.2.4. Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratutako funtsak	45
3.3. Lankidetzako proiektuen orientazioa eta irismena	47
3.3.1. Lankidetzako proiektuak	48
3.3.2. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuak	52
4. Lankidetzako eragileen balorazioa	57
4.1. GGKEei egindako inkesta	59
4.2. Lankidetzako eragilei egindako elkarrizketak	63

5. Emaitzak	73
5.1. Emaitzak eta balorazio orokorra	75
5.2. AMIA azterketa	78
6. Ondorioak eta gomendioak	81
6.1. Ondorioak	83
6.2. Gomendioak	85
7. Erreferentziak eta iturriak	89
7.1. Erreferentzia bibliografikoak	91
7.2. Legeak eta arauak	92
7.3. Datu-iturriak	93

Tauloen aurkibidea

1. Taula.	Lankidetzaren proiektuen GLB kodeen deskribapena	21
2. Taula.	Gipuzkoako Lankidetzaren proiektuen azterketa-matrizeko itemen deskribapena	22
3. Taula.	Gipuzkoako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektuen azterketa-matrizeko itemen deskribapena	24
4. Taula.	Inkestan aztertutako elementuen zerrenda, blokeen arabera banatuta	26
5. Taula.	Elkarrizketan aztertutako elementuen zerrenda, bloketan banatuta	27
6. Taula.	GGKEen elkarrizketa koadroa	28
7. Taula.	Administrazio publikoerik egindako elkarrizketen koadroa	29
8. Taula.	EAEko administrazio publikoerik emandako funtsen banaketa, GLB kodearen arabera, 2016-2022	40
9. Taula.	Gipuzkoako administrazio publikoerik emandako funtsen banaketa, GLB kodearen arabera, 2016-2022	42
10. Taula.	EAEko administrazio publikoerik Gipuzkoako GGKEerik emandako funtsen banaketa, GLB kodearen arabera, 2016-2022	44
11. Taula.	GFAk emandako funtsen banaketa, GLB kodearen arabera, 2016-2022	46

12. Taula.	GFAREN deialdietara aurkeztutako Lankidetzako proiektuetako ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiaren azterketa, 2016-2023	49
13. Taula.	GFAREN deialdietara aurkeztutako GEHko proiektuetako ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiaren azterketa	54
14. Taula.	AMIA matrizea (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak)	79

Grafikoen aurkibidea

1. Grafikoa.	EAEko administrazio publikoek emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022	40
2. Grafikoa.	EAEko administrazio publikoek ingurumen ikuspegidun GLB kodea duten proiektuei emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022	41
3. Grafikoa.	Gipuzkoako administrazio publikoek emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022	43
4. Grafikoa.	Gipuzkoako administrazio publikoek ingurumen ikuspegidun GLB kodeak dituzten proiektuei emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022	43
5. Grafikoa.	EAEko administrazio publikoek Gipuzkoako GGKEei emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022	45
6. Grafikoa.	TEAEko administrazio publikoek ingurumen ikuspegidun GLB kodeak dituzten Gipuzkoako GGKEen proiektuei emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022	45
7. Grafikoa.	GFAk emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022	47
8. Grafikoa.	GFAk ingurumen ikuspegidun GLB kodeak dituzten proiektuetara bideratutako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022	47

Akronimoen zerrenda

- AP: Administrazio Publiko
- CRS: Creditor Reporting System
- EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa
- ELGA: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
- ESS: Ekonomia Sozial eta Solidarioa
- GEH: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza
- GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia
- GGKE: Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea
- GIH: Garapen Iraunkorreko Helburuak
- GLB: Garapenerako Laguntza Batzordea
- GLH: Gipuzkoako Lurralde Historikoa
- GLO: Garapenerako Laguntza Ofiziala
- UPV/EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpen exekutiboa

Txosten honen **helburu nagusia** ingurumen iraunkortasunak Gipuzkoako garapenerako lankidetzan duen txertaketaren diagnosia egitea da. Diagnostiko horretatik abiatuta, hainbat gomendio eskaintzen ditugu, eta horiek lagungarriak izan daitezke lurraldeko lankidetzaren eremuan jarduketa-ildo ahalik eta eraginkorrenak ezartzeko.

Hala, lan honek hainbat **tresna metodologiko** kuantitatibo eta kualitatibo uztartzen dituen elaborazio-prozesu bat jarraitu du. Diagnosiarekin batera, AMIA azterketa bat ere egin dugu. Halaber, **informazio-iturri** desberdinak erabili ditugu:

- (1) Araudia eta plangintza tresnak. Arau-esparruaren azterketa EAeko eta Gipuzkoako arau eta plangintza dokumentuen bitartez egin da.
- (2) Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria. Garapenerako lankidetzaren arloan ingurumen iraunkortasunera bideratutako funts publikoen azterketa egiteko Atarian eskuragarri dauden datuak erabili ditugu. Azterketa 2016-2022 aldiari dagokio, eta euskal administrazio nagusiek Gipuzkoako GGKEetara zuzendutako funtsak hartu ditu.
- (3) GFAREN deialdietara aurkeztutako lankidetzaren proiektuak. 2016tik 2023ra bitarteko deialdietan urtero parte hartu duten ingurumen ikuspegidun proiektu guztiak aztertu dira, finantzamendua lortu zutenak eta lortu ez zutenak. Hala, Garapenerako Lankidetzako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuak bereizi dira.
- (4) Gipuzkoako GGKEei egindako inkestak. Galdetegia 76 GGKEri bidali zitzaion, eta horietatik % 34k erantzun zuten. Azterketa hiru blokeren arabera garatu da: lehenik, ingurumen iraunkortasunaren txertaketa mugatzen duten kanpo elementuak; bigarrenik, barne elementuak, eta, hirugarrenik, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia txertatzeari dagozkion potentzialtasunak.
- (5) Gipuzkoako lankidetzako eragileei elkarrizketak. Galdetegietako bloke berak landu ziren (kanpo elementuak, barne elementuak eta potentzialtasunak). Bi eragile mota elkarrizketatu genituen: alde batetik, Gipuzkoako GGKEak (6 elkarrizketa), eta, bestetik, lankidetzaren arloko Gipuzkoako administrazio publiko nagusiak (3 elkarrizketa).

Azterketa diagnostikoaren **ondorio** nagusia da **ingurumen iraunkortasunaren txertaketa-maila oso mugatua dela** Gipuzkoako garapenerako lankidetzan.

Txertaketa-maila eskas horrek, bada, talka egiten du ekologiaren eta iraunkortasunaren auziak tokiko zein mundu mailan planteatzen dituen erronkekin. Beraz, Gipuzkoako lankidetzaren politikak erronka horiei aurre egin nahi badie, **ekologia eta iraunkortasun ikuspegi batetik eraldatu** behar du bere burua.

Honako hauek dira landutako azterketa-eremuetako **emaitza nabarmenenak**:

- Ingurumen iraunkortasuna, oro har, modu marjinallean agertzen da EAEko eta, zehazki, Gipuzkoako plangintza tresnetan. Ingurumen ikuspegia ez da transbertsalizatzen eta, gainera, ingurumen iraunkortasuna iraunkortasun ahularen printzipioarekin bat dator.
- Gipuzkoako lankidetzaren esparruan, 2016-2022 aldian, oso funts gutxi bideratu dira ingurumen iraunkortasunera.
- Lankidetzaren proiektuen orientazioa eta irismena, oro har, oso mugatua da ingurumen iraunkortasunari dagokionez.
- Orokorrean, GGKEek eta administrazio publikoak aldatzeko borondate handia erakusten dute, ingurumen iraunkortasuna lankidetzan gehiago txertatzearen alde.

Jarraian, egindako **gomendioak** aurkeztuko ditugu **laburbilduta**:

- Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko 3/2024 Legea baliatzea. Haren esparruan iraunkortasun sozio-ekologikoaren eta ingurumen justiziaren aldeko abagunea zabaltzen da.
- GFAREN Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana 2021-2030 gaur egungo joera eta eraldaketetara moldatzea, eta, halaber, proiektuen baremazioa ikuspegi sozio-ekologikoaren eta ingurumen justiziaren ikuspegiaren arabera egokitzea.
- Lankidetzaren-ildo espezifiko bat sortzea, iraunkortasun sozio-ekologikora eta ingurumen justiziara bideratuta.
- Eragile osagarriek osatutako proiektuak sustatzea, lankidetzaren eta iraunkortasunaren sektoreetako ezagutza espezializatua sartzeko helburuz.
- Luzera handiagoko proiektuak sustatzea, eta proiektuen ingurumen inpaktua *ex post* ebaluatzeko esparru metodologikoa sortzea.

- GGKEei eta administrazio publikoko langileei prestakuntza espezifikoko ikastaroak eskaintzea.
- Elkarrekin hausnartzeko eremu bat bultzatzea, eragileen arteko elkarrizketaren eta esperientziak partekatzearen bitartez.



1. Sarrera



1.1. Testuingurua eta justifikazioa

Bizi dugun **krisi ekosoziala** erronka global nagusietako bat da, zalantzarik gabe, baita lankidetzaren esparruan ere. Antropozenoan sartzen ari gara, gizakiok inoiz baino eragin handiagoa baitugu Lur sisteman. Eragin horren ingurumen-ondorioetako batzuk atzerazinak dira, eta beste batzuk ezezagunak etorkizunari begira. Klima aldaketa horren adibide da; izan ere, hura arintzeko aukerak murrizten ari dira, eta premiazkoa da horretara egokitzea. Baina klima aldaketaz gain, zientzialariek ezarritako 9 muga planetarioetatik 6 gainditu ditugu jada; esate baterako, bioaniztasunaren galerari edo fluxu biogeokimikoei (fosforoa eta nitrogenoa) dagokienez (Richardson et al., 2023). Hori ere mundu mailako krisi ekosozialaren erakusgarri da. Horregatik guztiagatik, jokoan dago munduko biztanle gehienek bizi-eremu segurua izatea (O'Neill et al., 2018).

Halaber, **desparekotasun ekologikoak** nabarmenak dira Ipar-Hego dialektikaren esparruan, eta desberdinak izaten dira haien kausak zein haien ondorioak. Oro har, herrialde aberatsak mundu mailako ondorio ekologikoen erantzule nagusiak dira, eta ondorio horiek herrialde pobreek pairatzen dituzte neurri handiago batean. Kasu honetan ere, klima aldaketa har dezakegu adibide gisa: historikoki (1850-2020) CO₂ isurketa gehien egin dituzten eskualdeak Ipar Amerika eta Europa dira, zehazki, % 27 eta % 22, hurrenez hurren; hau da, Latinoamerika (% 6) eta Saharaz hegoaldeko Afrika (% 4) baino askoz isurketa gehiago (Chancel et al., 2022). Eta, hala ere, eskualde pobreenetan ematen dira klima aldaketaren ondorio handienak (migrazio behartuak, muturreko klima gertakarien ondorioak, nekazaritza egituraren aldaketak, etab.). Fenomeno horrekin batera, munduko eskualde bakoitzean biztanlegoaren zatirik aberatsena da berotegi efektuko gasen isurketen erantzule nagusia (ibid.).

Larrialdi ekosozialeko egoera hura **erronka bat** da **lankidetzaren** arloan ere. Lankidetzak, bada, hautaketa nagusi bat egin behar du: krisi ekologikoaren kausak ezabatu edo, aitzitik, ondorioak arindu (Carrillo, 2021). Beraz, bide bi horietako lehena batez ere herrialde aberatsetan zentratu beharko litzateke. Izan ere, horietan energiaren eta materialen kontsumoa murriztu behar da, herritarron kontsumo-ohiturak aldatu behar dira eta enpresa transnazionalak inpaktu gutxiagoko negozio-ereduetara igaro behar dute. Jarduteko modu hura gure inguruko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) proiektuetan asimila genezake, baina helburu espezifikoaren eta testuinguruaren arabera. Bigarren bideak, aldiz, garapen bidean dauden herrialdeetan esku hartzearen alde egiten du. Horietan, garapenerako lankidetzako proiektuek ondorio ekologikoetako batzuk arindu beharko litzukete. Honako hauetaz ari gara: nekazaritza familiarra eta agroekologikoa berreskuratzea

eta indartzea; herritarrak lurraldean finkatzea, bizibideen iraupena sustatu bitartez; edo basoak eta ekosistemak leheneratzea.

Eztabaida oso egokia da, batez ere garapenerako lankidetzaren eraginkortasuna zalantzan dagoela kontuan hartuta (Unceta, 2012; Freres et al., 2016). Egia da ingurumen iraunkortasunaren esparrura bideratutako garapenerako lankidetzaren Ipar-Hego desparekotasun ekologikoak arintzeko tresna bilakatu dela. Esate baterako, klima aldaketarekin lotutako ELGAREN aldeko laguntza 22.660 milioi eurokoa izan zen 2010ean, hau da, Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) % 15. Horretatik, bi heren inpaktuak arintzera bideratu ziren eta gainontzeko herena egokitzapenera (Victor, 2018). Hala ere, ingurumen iraunkortasunera bideratutako garapenerako laguntzaren eraginkortasuna ere zalantzan jarri izan dute (Huang eta Pascual, 2018). Eraginkortasun hori hainbat faktoreren araberakoa da, hala nola emaitzen konpromisoaren, harmonizazioaren eta emaitzen eta hartzailen arteko lankidetzaren araberakoa, sektore desberdinetan ekimen eta programa ugari baitaude (klima aldaketaz, energiaren, nekazaritzaz, basoen eta bioaniztasunaz, eta hiri-eremuaz gain).

Beste alde batetik, **ingurumen-transbertsalitatea** dugu. Hura garapen nazional, sektorial eta tokikoko politikak, araudiak, planak, inbertsioak eta ekintzak bideratzen dituzten erabakietan eta erakundeetan ingurumen aldagaia modu informatuan sartzeko prozesua da (Dalal-Clayton et al., 2009). Lankidetzaren arloan, honela definitzen da: “lehentasun horizontalak lankidetzaren etapa guztietako politika, programa eta esku-hartzeetan integratzea, plangintzatik hasi eta ebaluazioraino” (Freres et al., 2016). Aipatutako lehentasunak honako hauek izan ohi dira: gizarte inklusioa eta pobrezia-aren aurkako borroka, giza eskubideen sustapena eta gobernagarritasun demokratikoa, generoa garapenean, ingurumen iraunkortasuna, eta aniztasun kulturala errespetatzea (ibid.).

Ingurumen-transbertsalitatearen ikuspegiak presentzia handiagoa lortu du urteak joan ahala, batez ere lehen aipatutako krisi ekosoziala kontuan hartuta. Hala ere, hura neurri handiago batean integratzeko aukera dago oraindik (Marcellesi eta Palacios, 2008). Ingurumen-transbertsalitatea garrantzitsua da, hura lankidetzaren politiketan benetan txertatzeak bioaniztasuna eta zerbitzu ekosistemikoen iraupena bermatzen duen neurrian (González, 2008). Izan ere, ekosistemen narriadurak eta suntsiketak eragin zuzena dute hainbat komunitateren bizimoduetan (eta horrek pobrezia-aren aurkako borrokan eragiten du) eta, oro har, giza ongizatean (Duraiappah, 2004). Beraz, ingurumen iraunkortasunaren aldeko apustua ez da datozen belaunaldiekiko konpromisoa soilik, baizik eta oraingo belaunaldien pobrezia-aren eta desparekotasunen aurka borrokatzeko obligazioa ere.

Ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia, bada, nazioarteko garapen agendetan aurkitzen da aspalditik, batez ere azken urteotan, 2030 Agendaren eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) esparruan. Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), tokiko gainontzeko administrazioek bezala, ingurumen narriadurari aurre egiteko konpromisoa jaso du bere plangintzetan. Garapenerako lankidetzaren esparruan, **konpromiso** hura honako hauetan adierazten da: (1) GFAREN Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana 2021-2030, (2) finantziario deialdietara aurkezten diren proiektuen baremazio-irizpideak, eta (3) abian jartzen ari diren hainbat ekimen, hala nola lankidetzaren zuzeneko proposamenen bat, GFAko sailen arteko kolaborazioan.

Gaiari heltzeko premiaz gain, beraz, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiaren presentziaren kontua dugu, bai GFAREN plangintza estrategikoan eta ekimenetan eta bai Gipuzkoako Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen (GGKE) helburuetan eta jardueretan.

1.2. Helburuak eta irismena

Aurkeztutakoaren arabera, txosten honen **helburu nagusia** da ingurumen iraunkortasunak garapenerako lankidetzaren duen txertaketari buruzko diagnostikoa egitea, batez ere Gipuzkoako lurraldean. Horren bitartez, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiak Gipuzkoako garapenerako lankidetzaren politikan duen integrazio-mailaren ikuspegi eguneratua osatu nahi dugu. Diagnostiko horretatik abiatuta, lan honen helburuak erabilgarriak izan daitezke etorkizun hurbilean lurralde horretako lankidetzaren esparruan ahalik eta jardunbide eraginkorrenak ezartzeko.

Beraz, **bigarren mailako helburuak** honako hauek dira:

1. Honako hauek ingurumen iraunkortasunaren ikuspegitik aztertzea: (1) araudia eta plangintza-tresnak; (2) bideratutako funts publikoak, batez ere Gipuzkoako lurraldean; eta (3) GFAREN deialdietara aurkeztutako lankidetzaren proiektuak.
2. Ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia lankidetzaren proiektuetan sartzeko oztokatzen duten kausak identifikatzea, bai Gipuzkoako GGKEei dagokienez, bai administrazio publikoari dagokienez.
3. Ingurumen iraunkortasuna modu eraginkorrean integratzeko potentzialtasunak identifikatzea, bai administrazio publikotik, bai Gipuzkoako GGKEetatik.

4. Gomendio multzo bat egitea, Gipuzkoako garapenerako lankidetzako politikak ingurumen iraunkortasuna indartzen jarrai dezan.

Beraz, txostenaren helburua, aipatu bezala, etorkizun hurbilerako gomendioak eta jardunbideak eskaintzea da, horien **irismena** loteslea ez bada ere. Gomendio horiek, batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundiari (GFA) zuzenduta daude, hura baita lurraldeko finantzatzaile nagusia, baina lankidetzako beste edozein eragilerentzat ere (GGKEak, beste administrazio publiko batzuk) interesgarriak izan daitezke, bai Gipuzkoan eta bai EAEn.

1.3. Egitura

Txostenak bost kapitulu nagusi ditu. Jarraian, bigarren kapituluan esparru metodologikoa eta erabilitako iturriak zehaztuko ditugu. Hirugarren kapituluan azterketaren zati nagusia landuko dugu, hiru ataletan: alde batetik, araudiaren eta plangintza tresnen berrikusketa, eta, bestetik, lankidetzara bideratutako funts publikoen eta GFAk sustatutako finantziario deialdietara aurkeztutako lankidetzaproiektuen azterketa. Laugarren kapituluan, Gipuzkoako lankidetzara eragileek (GGKEak zein administrazio publikoak) egindako balorazioa aztertuko dugu. Bosgarren kapituluan, egindako azterketaren emaitzak jasoko ditugu, balorazio orokor batekin batera, eta hori AMIA analisi batekin osatuko dugu. Txostena seigarren kapituluarekin amaitzen da, horretan ondorioak eta gomendioak jasoko ditugu.

2. Metodologia eta iturriak



Lan honen elaborazio prozesuan zenbait tresna metodologiko uztartu dira, kuantitatiboak zein kualitatiboak. Informazio-iturriak ere askotarikoak izan dira. Jarraian, informazio iturriak zehaztuko ditugu, baita horien trataera metodologikoa eta analitikoa ere. Egindako diagnostia AMIA (Ahultasunak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak) azterketa batekin osatu da. Hura oso metodologia hedatua da eta plangintza estrategikorako tresna analitiko gisa balio du. Halaber, askotariko erakundeetan erabakiak hartzeko prozesuan laguntzen du¹.

Araudia eta plangintza tresnak

Arau esparruaren azterketa administrazio-maila desberdinetako arau eta plangintza agirietatik abiatu da. Txostenaren irismena Gipuzkoako lurraldera mugatzen bada ere, Euskal Autonomia Erkidego (EAE) osoan aplikatzeko agiriak ere aztertu dira, azterketa testuingu egokian jartzeko.

EAEren eremurako, beraz, honako dokumentazio hau aztertu da: 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa; Koldo Uncetak egindako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legeari buruzko Txostena; Lankidetzaren eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua; 3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzaren eta Elkartasunari buruzkoa; Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana 2018-2021. Aurrekoarekin batera, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gida Plana ere aztertu dugu; izan ere, hura testu arauemailea ez den arren, erreferentea da sektorean.

Gipuzkoaren kasuan, alde batetik, garapenerako lankidetzara zuzendutako dirulaguntzak emateko Oinarri Arautzaile nagusiak eta espezifikoa aztertu ditugu 2016-2023 aldirako. Bestetik, lankidetzarako plangintza-tresnak aztertu ditugu, honako dokumentu hauen bitartez: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako Lankidetzaren Jarduera Esparru Estrategikoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana 2021-2030. Azken hori da indarrean dagoen plana.

1 Zehaztasun metodologiko gehiagorako, ikus *Community Tool Box* ekimenaren webgunea (<https://ctb.ku.edu/es>). URL: <https://ctb.ku.edu/es/tabla-de-contenidos/valoracion/valorar-las-necesidades-y-recursos-comunitarios/FODA-analisis/principal> [2024/05/14].

Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria

Garapenerako lankidetzaren esparruan ingurumen iraunkortasunera bideratutako funts publikoen azterketa kuantitatiboa Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko (<https://euskalankidetzaren.hegoa.ehu.es/>) datuen bitartez egin da. Dagoen informazioan oinarrituta, azterketa 2016-2022 aldirako egin da, eta euskal administrazio nagusiek Gipuzkoako GGKEetara bideratu dituzten funtsak hartu ditu: Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Gasteizko Udala eta Euskal Funderoa, lankidetzarako tokiko euskal erakundearen elkarteak. Jasotako datuak 2016az geroztik emandako funts guztiei dagozkie. Horrek esan nahi du, batzuetan aurretik hitzartutako funtsak izan direla baina urte horretan amaitu direla ordaintzen. Beraz, izan daiteke proiektuetako batzuk 2016 baino lehenago abiatu izana.

Datuen azterketa kalkulatu-errien bitartez egin da, eta horiek prozesatzean eta ustiatzean intereseko informazio hau bereizi da: (1) euskal administrazio guztien datuak, eskuragarri dauden urteetarako; (2) Gipuzkoako administrazio guztien datuak, hau da, Donostiako Udalarenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak eta Euskal Funderoaren bitartez lankidetzaren proiektuen batean parte hartu duten Gipuzkoako udalarenak; (3) Gipuzkoako GGKEek jasotako funtsak, ez soilik Gipuzkoako administrazioen eskutik jasotakoak baizik eta beste administrazio publikoetatik etortitakoak ere; eta (4) lurraldeko erakunde finantzatzaile nagusia den Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuak.

Behin informazio hori bereizita, azterketa proiektuen esleipenaren arabera egin da, Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) kodeari dagokionez². Lehenik, GLB 410 kodea (Ingurumenaren babes orokorra) hartu zen kontuan, hura baita ingurumen iraunkortasunaren arloko nagusia. Bigarrenik, ingurumen iraunkortasunarekin modu zuzenagoan lotuta omen dauden jardueren (nekazaritza, energia, etab.) GLB kodeak hartu ziren kontuan (GLB 140, 230, 311, 312, 313, 322, 520). Hala ere, aipatu beharra dago GLB kode horien pean jarduerak ez *iraunkorrak* ere egin daitezkeela, baina uste dugu hori ez dela lankidetzaren proiektuen esparrua. Gero, zerranda horretan GLB 151 eta 998 sartu genituen; izan ere, litekeena da GLB horiei lotutako proiektuek ere ingurumen iraunkortasunaren arloan eragitea (1. taula).

2 GLB ELGAREN Garapenerako Laguntza Batzordeari dagokio. Hura garapenerako lankidetzaren herrialde hornitzaileen foro nagusia da. Hala, GLBk garapenerako lankidetzaren eta garapen politikak nazioartean sustatzeko helburu nagusia du (OECD, 2016). GLB sektoreak garapenerako lankidetzaren jardueraren sektore nagusiak dira, eta proiektu baten esparru nagusia adierazteko balio dute.

Proiektuen eskaleek proiektuaren GLB kodea zehazten dute, eta, normalean, proiektu bakoitzak GLB kode bakarra du, bere jarduera-eremu nagusiari dagokiona. Hala ere, gerta daiteke ingurumen iraunkortasunari lotutako jardueren GLB kodea ingurumen ikuspegidun gisa esleituta ez egotea.

1. Taula. Lankidetzako proiektuen GLB kodeen deskribapena		
GLB kodea	Deskribapena	Ikuspegia
140	Ur hornidura eta saneamendua	Ingurumena
151	Gobernua eta Gizarte Zibila, orokorra	Orokorra
230	Energiaren ekoizpena, banaketa eta eraginkortasuna	Ingurumena
311	Nekazaritza	Ingurumena
312	Basozaintza	Ingurumena
313	Arrantza	Ingurumena
322	Erauzketa industriak	Ingurumena
410	Ingurumenaren babes orokorra	Ingurumena
520	Garapenerako elikadura-laguntza / Elikadura segurtasunerako laguntza	Ingurumena
998	Esleitu gabe / Zehaztu gabe	Orokorra

Iturria: egileak.

GFAREN DEIALDIETARA AURKEZTUTAKO LANKIDETZAKO PROIEKTUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) finantziarioa eskuratzeko deialdi publikoetara aurkeztutako proiektuek bere osatu dute informazio iturri hori. Deialdietara aurkeztutako proiektuen baremazio-txantiloak eskuratu ahal izan ditugu, HEGOAREN eskutik. Bildutako informazioa anonimoa izan da eta haren erabilera ikerketaren helburuetarako bakarrik izan da.

Hala, 2016-2023 aldiaren urteroko deialdietan parte hartu duten ingurumen ikuspegidun proiektu guztiak aztertu ditugu, horiek finantziarioa lortu ala ez. Ingurumen ikuspegiaren azterketa egiteko Garapenerako Lankidetzako proiektuak eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako (GEH) proiektuak bereizi dira, proiektu mota bakoitzerako azterketa-matrize bat eginez. Azterketa honetan kontuan hartutako itemak 2. eta 3. tauletan jasotzen dira.

Hala, matrize horietan bildutako informaziotik abiatuta, eta kalkulu-orriak erabiliz, bildutako eta aukeratutako datuen azterketa kuantitatibo deskriptiboa egin dugu.

2. Taula. Gipuzkoako Lankidetzako proiektuen azterketa-matrizeko itemen deskribapena	
Itema	Deskribapena
Urtea	Finantziazio deialdian parte hartzearen urtea
Izena	Proiektuak baremazioan duen izena
Erabakia	Finantziazioa eman da edo ez
Puntuazioa	Iraunkortasun ikuspegiaren irizpidean jasotako puntuazioa, 5 puntuazio partziala eta 10 puntuazio osoa izanik.
Ingurumen ikuspegia	<p>Nola sartzen du ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia proiektuan, honako hauek bereiziz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi transbertsala: aurreko atalean 10eko puntuazioa du eta hura ez da proiektuaren helburu nagusia. Horrek esan nahi du ingurumen iraunkortasuna transbertsalki txertatzen dela proiektuan, eta ekintza eta/edo emaitza guztietan islatzen dela. • Helburua nagusia: aurreko atalean 10eko puntuazioa du eta hura proiektuaren helburu nagusia da. • Osagai nabarmena: aurreko atalean 5eko puntuazioa du. Horrek esan nahi du ingurumen ikuspegia ekintza eta emaitza bakar batean jasotzen dela.
Herrialdea	Proiektua garatzen den herrialdea.
Sailkapena	Proiektuen GLB kodea eta <i>Creditor Reporting System</i> (CRS) sektorea jasotzen da.
Ingurumen sektorea	<ul style="list-style-type: none"> • Agroekologia • Nekazaritza • Ingurumen eskubideak • Lurraldea eta natura • Ingurumen iraunkortasuna duten ekimenak • Ingurumen kudeaketa komunitarioa • Elikadura burujabetza • Baliabideen erabilera • Ura • Energia • Garraioa • Hondakinak

Itema	Deskribapena
Testuingurua edo problematika	<p>Proiektuaren bitartez landu nahi den arazoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azpiegitura falta • Energia falta • Elikadura burujabetzarako eskubidearen bermerik eza • Ingurumen eskubideen urraketa edo klima aldaketaren inpaktuak • Laborantza lurrak hondatzea edo baserritarrentzako laguntza falta • Ura eskuratzeko aukerarik eza • Higienarik edo osasungarritasunik eza • Ekimen ez iraunkorrak • Lurraldearen defentsarik eza
Ekintzak	<p>Proiektuetan garatzen diren ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza • Erakundeak indartzea • Parte-hartze edo eragin politikoa • Ekimen iraunkorrak laguntzea • Azpiegitura sortzea • Erresistentzia eta erresilientzia • Sentsibilizazioa eta komunikazioa • Sorospena
Emaitzak	<p>Zer eremutan eragin nahi du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaitasunak indartzea • Ekimen iraunkorrak • Agroekologia • Ura eskuratzea • Elikadura burujabetza • Ingurumena babestea • Lurraldea defendatzea • Ingurune osasungarria • Efizientzia energetikoa • Baliabideak eskuratzea • Baliabide naturalen erabilera iraunkorra • Hondakinak

Itema	Deskribapena
Tokiko erakundearen izaera	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde jeneralistak • Ingurumen ikuspegidun erakundeak • Bat ere ez, erakundeak beste izaera bat duenean
Xede-taldea	<p>Proiektuak gizarte-talde zaugarri bati zuzenduta egon daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haurrak • Emakumeak • Pertsona desgaituak • Komunitate indigenak • Pertsona errefuxiatuak eta/edo gatazken biktimak
Tokiko eragilea	Aztertutako proiektua ingurumen ikuspegia duen tokiko eragile batekin identifikatzen bada hori idatziko da.

Iturria: egileak.

3. Taula. Gipuzkoako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektuen azterketa-matrizeko itemen deskribapena

Itema	Deskribapena
Urtea	Finantziazio deialdian parte hartzearen urtea
Izena	Proiektuak baremazioan duen izena
Erabakia	Finantziazioa eman da edo ez
Puntuazioa	Iraunkortasun ikuspegiaren irizpidean jasotako puntuazioa, 5 puntuazio partziala eta 10 puntuazio osoa izanik.
Ingurumen ikuspegia	<p>Nola sartzen du ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia proiektuan, honako hauek bereiziz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi transbertsala: aurreko atalean 10eko puntuazioa du eta hura ez da proiektuaren helburu nagusia. Horrek esan nahi du ingurumen iraunkortasuna transbertsalki txertatzen dela proiektuan, eta ekintza eta/edo emaitza guztietan islatzen dela. • Helburua nagusia: aurreko atalean 10eko puntuazioa du eta hura proiektuaren helburu nagusia da. • Osagai nabarmena: aurreko atalean 5eko puntuazioa du. Horrek esan nahi du ingurumen ikuspegia ekintza eta emaitza bakar batean jasotzen dela.

Itema	Deskribapena
Ikuspegi geografikoa	Zer lekutako problematikak lantzen ditu proiektuak: Hegoalde Globala edo Iparralde Globala.
Sailkapena	Proiektuen GLB kodea eta Creditor Reporting System (CRS) sektorea jasotzen da.
Testuingurua edo problematika	<p>Proiektuak lantzen dituen arazoak. Ingurumen arazoak identifikatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen-sistemaren krisia • Kontsumo arduragabea • Bizitza ez iraunkorrak • Energia <p>Eta gizarte arazoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Globalizazioa • Giza bizitza hondatzea • Nekazarien edo komunitate indigenen diskriminazioa • Diskriminazioa (arrazo, generoa, ...) • Bake-prozesuak edo gatazka armatuak • Lurraldearen defendatzaileen segurtasuna • Multinazionalen eta megaproiektuen efektuak • Genero-indarkeria
Ekintzak	<p>Proiektuetan garatzen diren ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontzientziazioa edo sentsibilizazioa • Komunikazioa • Hezkuntza edo ikerketa • Sustapena
Emaitza	<p>Zer eremutan eragin nahi du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen iraunkortasuna eta ingurumena babestea • Kontsumo jasangarria eta bizi-ohitura iraunkorrak • Gizarte eta ingurumen ekimenak • Gizarte eraldaketa • Bizitza iraunkorrak • Garapen iraunkorra • Lurraldearen eta giza eskubideen defendatzaileak

Iturria: egileak.

Gipuzkoako GGKEei egindako inkestak

Azterketa kuantitatiboa osatzeko Gipuzkoako GGKEei zuzendutako inkesta batetik hartutako informazioa erabili dugu. Ordura arte egindako diagnostikoan oinarrituta, hasierako premisa izan da ingurumen iraunkortasuna ez dela behar beste txertatu erakundeen jardueran. Hala, hasierako kontrol-galderez gain, galdetegiak hiru bloke hauek ditu (4. taula): lehenengoa, ingurumen iraunkortasunaren integrazioa mugatzen duten kanpo elementuei buruzkoa; bigarrena, barne elementuei buruzkoa; eta, hirugarrena, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia txertatzeari dagozkion potentzialtasunei buruzkoa. Galdetegiaren diseinua eta idazketa egiteko eginkizun horren argibide metodologiko nagusiak erabili dira, hala nola galdetegia konpartimentuetan banatzea, idazketa mota, etab. (Arundel, 2023); halaber, galdetegiaren lehenengo bertsioa inkestatutako GGKEen lagin batekin probatu zen, behin betiko bertsioa egin aurretik.

4. Taula. Inkestan aztertutako elementuen zerrenda, blokeen arabera banatuta	
Kanpo elementuak	Kontzientziazioa
	Proiektuen esparrua
	Aldundia
	Erreferentziako paradigmak
Barne elementuak	Proiektuen ikuspegiak
	Proiektuen edukiak
	Txertatzeko arrazoiak
	Aplikazio-paradigma
	Prestakuntza eta ezagutza
Potentzialtasunak	Ikuspegia tranbertsala bilakatzeko prozesua
	Egin beharreko aldaketak
	GGKEaren beharrak
	Energia eta baliabide materialak
	Politiken koherentzia

Iturria: egileak.

Gipuzkoako lankidetz-eragileekin egindako elkarrizketak

Inkestez gain elkarrizketa sakonak ere egin ziren. Horien helburua, bada, Gipuzkoako lankidetzako eragile gailenen ikuspegia eta esperientzia zuzenean ezagutzea izan da. Elkarrizketak galdera desberdinak nahastuz diseinatu ziren, segida koherente batean oinarrituta (Liamputtong, 2009). Horien garapenean, eta entzute aktiboari esker, elkarrizketatuek autonomiaz eta askatasunez hitz egin ahal izan zuten. Elkarrizketak grabatu egin ziren, eta gero transkribatu ziren.

Elkarrizketak bi motatakoak izan dira elkarrizketatutako eragilearen arabera, eta mota bietan inkestaren logikari jarraitu diote, landutako blokeei dagokienez (5. taula). Lehen motako elkarrizketak GGKE adierazgarriei egin zaizkie, eta bigarren motakoak Gipuzkoako lankidetzara bideratuta dauden administrazio publiko nagusiei.

5. Taula. Elkarrizketan aztertutako elementuen zerrenda, bloketan banatuta		
	GGKEak	Administrazioa
Kanpo elementuak	Presentzia	Beste administrazio batzuk
	Erreferentziako paradigma	Ikuspegiaren presentzia proiektuetan
	Iraunkortasunaren dimentsioak	
	Ipar-Hego lehentasunak	Ipar-Hego desberdintasuna
	Proiektuan exijitutako edukia	Administrazioaren kudeaketa
Barne elementuak	Berezko paradigma	Erreferentziako paradigma
	Proiektuen edukia	Proiektuen baremazioa
	Puntuazioaren garrantzia	Lankidetz eta GEH proiektuen arteko desberdintasuna
	Proiektuen emaitzak	
	Prestakuntza eta ezagutza	Finantziarioa
Potentzialtasunak	Administrazioa - Aldundia	Energia eta baliabide materialak
	Ipar-Hego estrategia edo estrategia globala	Prestakuntza eta ezagutza partekatzeko plataformak
	Ingurumen krisiaren inpaktuak	Politiken koherentzia
	Energia eta baliabide materialak	Etorkizuna

Iturria: egileak.

Lehen motako elkarrizketak sei GGKEri egin zaizkie. Horietan, guztira, zortzi lagunek hartu dute parte. Helburuaren eta laginaren ezaugarrien arabera, GGKEen hautaketa “ingurumenaren txertaketa-maila” eta “erakundearen tamaina” irizpideei erantzun die. Hala, elkarrizketatutako GGKEek honako ezaugarri hauek izan dituzte:

- Erakunde ekologista bat, lankidetzaproiektuetan parte hartzen duena.
- GGKE txiki bat, ingurumen iraunkortasuneko ikuspegia duten lankidetzaproiektuak egikaritzeko esperientzia handia duena (horretatik bi lagunek parte hartu zuten elkarrizketan).
- GGKE txiki bat, ingurumen iraunkortasuneko ikuspegia duten lankidetzaproiektuetan esperientziarik ez duena.
- GGKE handi bat, ingurumen ikuspegidun proiektuetan esperientziarik ez duena.
- Bi GGKE handi, ingurumen ikuspegidun proiektuetan esperientzia dutenak (horietako batetik bi lagunek parte hartu zuten elkarrizketan).

6. Taula. GGKEen elkarrizketa koadroa

Elkarrizketak	Irizpidea		Elkarrizketatutako pertsona kopurua	Elkarrizketaren data eta lekua	Iraupena
	Erakundearen tamaina	Erakundeak ingurumen esperientzia du			
1. elkarrizketa	Txikia	Ez	1	Donostia, 2023/11/15	36 min.
2. elkarrizketa	Txikia	Bai	2	Donostia, 2023/11/15	1o. eta 17 min.
3. elkarrizketa	Handia	Ez	1	Donostia, 2023/11/20	1o.
4. elkarrizketa	Handia	Bai	1	Sestao, 2023/11/16	1o. eta 15 min.
5. elkarrizketa	Handia	Bai	2	Bilbo, 2023/11/22	1o. eta 11 min.
6. elkarrizketa	Ekologista		1	Bilbo, 2023/11/22	1o. eta 5 min.

Iturria: egileak.

Bigarren motako elkarrizketak Gipuzkoako lankidetzaren proiektuak finantzatzen dituzten administrazio publikoei nagusiei zuzendu zitzaizkien: Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta eLankidetzaren – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. Donostiako Udalari dagokionez, ordezkari bakarra elkarrizketatu zen, eta beste bi erakundeetan pertsona gehiago elkarrizketatu ziren: GFAn profil osagarriko bi lagun (profil politikoa eta profil teknikoa); Agentzian, aldiz, profil teknikoko lau lagun elkarrizketatu ziren, eta horrek euskal lankidetzaren egoera sakon ezagutzeko aukera eman du.

7. Taula. Administrazio publikoei egindako elkarrizketen koadroa

Elkarrizketak	Irizpidea	Erakundea	Elkarrizketatutako pertsona kopurua	Elkarrizketaren data eta lekua	Iraupena
1. elkarrizketa	Lurralde mailako administrazioa	Gipuzkoako Foru Aldundia	2	Donostia, 2023/11/29	1o.
2. elkarrizketa	Udal mailako administrazioa	Donostiako Udala	1	Donostia, 2023/11/29	1o.
3. elkarrizketa	Autonomia mailako administrazioa	eLankidetzaren	4	Gasteiz, 2023/12/14	1o. eta 16 min.

Iturria: egileak.

Aipatu beharra dago galdetegietan zein elkarrizketetan jasotako informazioa anonimoa dela eta haren erabilera ikerketa helburuekin bakarrik izango dela, txosten honen kasuan bezala. Arrazoi metodologikoak direla eta, elkarrizketak grabatu egin ziren, elkarrizketatuek horretarako baimena eman zutelarik.



3. Azterketa



Kapitulu honetan, egindako azterketaren emaitzak deskribatzen dira, hiru ataletan bereizita. Lehenik, lankidetzaren politikaren arau-esparrutik eta plangintza-tresnetatik abiatuta egindako azterketa dokumentala lantzen da, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) esparruan eta bai Gipuzkoako Lurralde Historikoan (GLH). Bigarrenik, EAEn 2016-2022 aldian lankidetzara bideratutako funts publikoen azterketa deskriptiboa egiten dugu. Hirugarrenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) 2016-2023 aldian finantzaturako lankidetzaproiektuen azterketa xehatzen da.

3.1. Lankidetzaren politikaren arau eta plangintza esparrua

3.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Atal honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lankidetzari dagozkion arauen eta planen edukia aztertuko dugu, ingurumen-ikuspegitik. Lehenik, 1/2007 Legea aztertuko dugu. Hura 15 urtez egon da indarrean. Ondoren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legeari buruzko Txostenaren alderdi nabarmenenak laburbilduko ditugu. Txostena UPV/EHUko katedratiko Koldo Uncetak egin du. Hirugarrenik, Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen Aurreproiektuaren alderdirik garrantzitsuenak aztertuko ditugu, eta baita jaulkitutako Legearenak ere. Ondoren, Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 aldirako IV. Gida Planaren ingurumen ikuspegiaren elementurik nabarmenenak jasoko ditugu. Azkenik, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gida Plana ere aztertuko dugu atal honetan, hura baita sektoreko erakundeen baterako dokumentu nagusia.

Azken hamabost urteotan, **Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak** arautu du euskal lankidetzaren legeak, bere garaian, lankidetzaren egoerari buruzko diagnostiko oso ona egin zuen, baina oso mugatuta zegoen, lankidetzaren ikuspegi zaharkitu bati atxiki zelako. Legeak nabarmentzen dituen arazoen artean, ingurumena babesteko beharra dugu. Hori, bada, gauza berria zen lankidetzaren arloan, baina ez du zehazten ingurumena nola babestu behar den, edo baliabide naturalak arduraz nola erabili. Lege honetan ingurumen iraunkortasunaren nolabaiteko transbertsalitatea ikusten dugu, ingurumenekoak ez diren zenbait printzipioak ikuspegi horren elementuak baitituzte. Hala ere, marjinalizat har daiteke, ingurumen iraunkortasuna ez baita legearen ikuspegi nagusietako bat. Izan ere, legeak giza garapen iraunkorraren paradigmaren kokatzen du lankidetzaren; eta, horretan, ingurumen dimentsioa oinarrietako bat da, baina dimentsio ekonomikoak eta sozialak duten garrantzi berarekin. Beraz, ingurumen arazoei heltzen badie ere, ezin da ingurumen iraunkortasunaren erreferentetzat hartu lankidetzaren esparruan.

Gainera, **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legeari buruzko Txostenak** Legea kritikatzan du, ez omen baita nazioarteko lankidetzaren ikuspegi eguneratu baten barruan kokatzen. Munduan arazo konplexuak, askotarikoak eta interdependentek daudela ulertzen badu ere, hori ez dago legean behar bezala adierazita. Egia esan, izaera tradizionalagoa duen lankidetzaren ikuspegiaren ondorio da hori, hura ez baita gaur egungo erronketara egokitzen. Txostenak, hortaz, arau-esparru berri bat sortzeko premia adierazten du, gaur egungo egoera aintzat hartzen duena (erronkak, arazo globalak, interdependentzia sistemikoa...) eta justizia globalera eta iraunkortasunera bideratutako lankidetzaren arautzen duena.

Testuinguru horretan, **Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legearen Aurreproiektuan** lankidetzaren paradigma berri baten aldeko jarrera atzematen da. Dokumentua diagnostiko batetik abiatzen da, eta krisi sistemikoko egoera batean gaudela ezartzen du. Haren arabera, krisi horretan ingurumen egoerari eman behar zaio lehentasuna. Horretarako, bada, gaur egungo sistema kapitalista baztertu eta gizarte eta ingurumen arloan arduratsuagoa den sistema ekonomiko batera igaro behar dugu. Halaber, nazioarteko lankidetzak justizia globala izan behar du helburu nagusi, eta bizitzaren iraunkortasuna bilatu behar du. Hau da, ingurumen eta gizarte arlo arlo ekonomikoaren gaintetik kokatzen duen sistema batez ari gara. Iraunkortasuna printzipio arautzaileen artean sartze hutsa aurrerapausoa da, baita hura gainontzeko printzipioetan transbertsalizatzea ere. Beraz, aurreproiektuak garrantzi nabarmena ematen dio ingurumen iraunkortasunari.

Izan ere, onartu berri den Lankidetzaren legea, **Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legea**, alegia, aurrerapauso bat da ingurumen iraunkortasunaren diskurtsoa euskal lankidetzaren arloan txertatzeko bidean. Arrazoiak azaltzean, Legeak oso mundu desporekoa, konplexua eta mundu mailako prozesu interdependentek dituen ezaugarritzen du; eta garapen-eredu hegemonikoa ez iraunkortzat hartzen du, giza bizitza eta planetaren bizitza arriskuan jartzen baititu. Hortaz, funtsezko ikusten du alternatiba ekonomikoak, kulturalak eta sozialak sortzea, hain zuzen ere, pertsonen eta gainontzeko izakien bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen dituztenak.

Legearen helburuak dira (4. artikulua), alde batetik, giza garapena eta iraunkortasuna sustatzea eta, bestetik, desporekotasunaren aurka borrokatzea eta justizia globala sustatzea, baita haren ingurumen-dimentsioari dagokionez ere. Halaber, haren ikuspegi nagusietako bi aipatu beharra dago (6. artikulua): (1) ikuspegi ekosoziala, planetaren muga biofisikoak eta gizarte eta ingurumen desoreken arteko interdependentzia aintzat hartzen dituen. Gainera, ikuspegi horrek etengabeko hazkunde ekonomikoak ekosistemetan eragiten duen kolapsoa bistaritzen du.

Hala, bizitzaren iraunkortasuna konprometitzen ez duen trantsizio ekosozial baten alde agertzen da, efizientzia energetikoaren, mugikortasun iraunkorraren, bioaniztasunaren eta lurraldearen kudeaketa iraunkorraren arloetako ekintzak sustatuz. Eta (2) garapen iraunkorreko politiken koherentzia ikuspegia, politika publikoen ikuspegi integrala izateko premia azpimarratzen duena, jarduketa publikoaren osagarritasunak baliatzeko eta gatazkak eta inkoherentziak murrizteko. Ikuspegi horrek, bada, giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegia txertatzea eskatzen du administrazio publiko bakoitzaren politikak diseinatzeko, abian jartzeko eta ebaluatzeko (10. artikulua). Lehentasunezko ikuspegiak giza eskubideen ikuspegiarekin, ikuspegi feministarekin, tokiko-global ikuspegiarekin eta lurralde-oinarriaren ikuspegiarekin osatzen dira, batez ere azken hau ingurumen iraunkortasunari lotutako alderdiekin.

Lege horren diskurtsoa, beraz, aurreko legearena baino askoz anbiziotsuagoa da ingurumen iraunkortasunari dagokionez. Izan ere, legean ekofeminismoari, trantsizio ekosozialari eta ingurumen justiziarri dagozkion elementuak biltzen dira. Ondorioz, haren interpretazio esparruak nazioarteko garapen eta lankidetzaren agendaren erreferentzia diren 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) gaintzen ditu.

EAEko arau eta plangintza esparrua **Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 aldirako IV. Gida Planarekin** osatzen da, eta horrek indarrean jarraitzen du 2024an. Planaren oinarri kontzeptuala 2030 Agenda da. Horretan, bada, ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioen arabera interpretatzen da garapen iraunkorra, eta hirurek dute garrantzi erlatibo bera. Interpretazio horren oinarrian iraunkortasun ahuleko printzipioa dago, eta hark dimentsioen arteko trukea edo ordezkapena onartzen du. 2030 Agendan oinarritzen bada ere, planak agendaren zenbait elementu kritikitzen ditu, hala nola bere planteamenduan aurkitzen diren inkoherentziak. Hala, planak aurreko planaren logika mantentzen du, eta ez dio ingurumen iraunkortasunari garrantzi nabarmena ematen. Izan ere, mundu mailako arazoei eta batez ere krisi ekologikoari erantzuna eman nahi dien arren, ingurumen ikuspegia ez da transbertsala, baizik eta gainontzeko ikuspegiaren osagarria. Beraz, giza garapen iraunkorreko helburuak eta iraunkortasun ekologikoa helburu marjinalak dira horretan. Ingurumen iraunkortasuna ez da jarduketa-ildo bat (politiken koherentziari buruzko ildoan aurkitzen bada ere), eta ez du garrantzi nabarmenik. Aurrekontuan ere ez da hura aipatzen, eta horrek nolabaiteko konpromiso falta adieraz dezake. Hala ere, aipatzekoa da AUZO(LAN)KIDE ekimenen barruan ingurumen iraunkortasunari buruzko batzuk daudela: ekonomia eredu solidarioa, erosketa publiko arduratsua, uraren erakunde arteko programa, teknologia eta ingurumena.

Azkenik, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiak presentzia handiagoa du **Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gida Planean**. Dokumentu horretan Koordinakundeak lankidetzaren sektorean dituen etorkizunerako erronkak aurkezten dira. Ardatz transbertsalei dagokienez, planeta eta bizitza aipatzen du, ez soilik Naturaren Eskubideen ardatzean, baizik eta beste batzuetan ere, hala nola gizarte eraldaketaren eta tokiko-global ikuspegiaren ardatzetan. Izan ere, Naturaren Eskubideei buruzko diskurtso baten alde agertzen da, eta kontzeptu hura berritzailea den heinean, aurrerapen bat erakusten du arlo horretan. Izan ere, naturarekin harreman horizontalagoak ezartzen dituen paradigma bat da, eta mendebaldeko mundu-ikuskerarekin bat ez datozen beste batzuk hartzen dituena. Baina hori aurrerapen kontzeptual handia bada ere, estrategietan ez da atzematen ikuspegi horren adierazpen argirik; izan ere, horiek ingurumen iraunkortasunaren ikuspegitik lantzen dira, Naturaren Eskubideen ikuspegitik baino gehiago.

3.1.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

EAEko lurraldean aplikatu beharreko araudiarekin batera, Gipuzkoan aplikatzekoak diren plangintza arau eta tresna batzuk ere badaude. Hala, lehenik, GFaren garapenerako lankidetzaren jarduera esparru estrategikoa aztertzen dugu; bigarrenik, GFaren Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana 2021-2030; eta, azkenik, garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako Lankidetzaren Esparru Estrategikoaren helburua, 2015-2019 aldirako, elkartasun eta erantzukizun printzipioetan oinarritutako lankidetzaren indartzea da. Esparru estrategikoak Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) ezartzen ditu erreferentzia gisa. Hala, hainbat ardatz tematikotik lan egiten du lankidetzaren eragina handituko duten sinergiak bilatzeko asmoz. Garapen iraunkorraz egiten duen interpretazioa hiru ardatz nagusitan oinarritzen da (ekonomia, gizarte, ingurumena). Hala, GIHeekin bat egiten duen heinean, ingurumen ikuspegiak nolabaiteko protagonismoa du, iraunkortasun ahuleko printzipioa erabiltzen badu ere. Gainera, garapen iraunkorrek betetzeko gaur egungo ekoizpen eta kontsumo eredua aldatu beharra dagoela azpimarratzen du, horren ordez giza eskubideak bermatzen dituen eredu bat ezartzeko. Horretarako, lankidetzaren estrategiak aldatu beharra dago, gaur egungo arazoak irakurketa integral eta ulerkor baten bitartez.

Esparru estrategiko horren arabera, aipatutako aldaketak maila instituzional guztietan egin behar dira, ekoizpen eta kontsumo eredian benetako aldaketak sustatzeko eta horiek modu koherentean egiteko. Koherentzia horretarako ere, ikuspegi

integrala eta hezkuntzan zentratua behar dugu, hura baita lankidetzaren oinarria eta lankidetzarekin konpromiso handiagoa lortzeko bidea. Beraz, dokumentuak lau proiektu mota aurreikusten ditu, baina horietako bat ere ez da ingurumen iraunkortasunean bakarrik zentratzen. Izan ere, aldaketa horiek lortzeko helburuz, esparruak zenbait jarraibide aurkezten ditu lankidetzako proiektuen diseinua hobetzeko, Gipuzkoan dauden baliabideak kontuan hartuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako Lankidetzaren 2021-2030 aldirako Gida Planak, nolabait, esparru estrategikoaren hutsuneak lantzen ditu. Planak hainbat berrikuntza ditu, eta horien artean bereziki aipagarria da dimentsio anitzeko modu batean ulertzen duela lankidetzaren. Planak 2030 Agenda eta GIHak mantentzen ditu erreferentzia nagusi gisa, eta hortaz, hark ere iraunkortasun ahuleko printzipioarekin bat egiten du. Baina dimentsio anitzeko kontzeptu bat den heinean, benetako garapen globala lortzeko egiturazko aldaketak egin beharra dagoela adierazten du. Izan ere, aurretik, lankidetzaren irismena esfera jakinetara mugatzen zen, eta horietan egindako aurrerapenak itzulgarritzat hartzen ziren.

Zentzu horretan aurrera egiteko, planak intereseko lau elementu hauek ezartzen ditu: (1) 2030 Agenda eta GIHak, (2) herritartasun globaleko ikuspegia, (3) garapenerako politiken koherentzia eta (4) lurralde esparrua. Horietan guztietan ingurumen iraunkortasuna modu marjinalan agertzen da edo iraunkortasun ahuleko ikuspegiaren araberakoa da. Planak, gainera, zazpi printzipio gidari ezartzen ditu: epe luzea, adostasuna, genero berdintasuna, partaidetza, ingurumena, ebaluazioa eta gardentasuna. Ingurumen printzipioa 2030 Agendaren eta Pariseko Akordioaren bitartez zehazten da. Horietan, arrisku nagusia klima aldaketa da, eta ez krisi sistemikoa, baina azken horrek ere nolabaiteko garrantzia du planean. Helburu estrategikoen artean ekonomia sozial eta solidarioa dugu. Horrek pertsonen ongizatea lantzen du, baliabide naturalen erabilera arduratsuaren bitartez eta ekoizpen eta kontsumo eredu aldaketaren bitartez; eta kontsumitzaileen erantzukizun indibiduala eta zein ereduarekiko erantzukizun kolektiboa ezartzen du.

Ondorioz, planak berrikuntza interesgarriak ditu esparru estrategikoari dagokionez, baina oraindik zenbait ahultasun ditu ingurumen iraunkortasunari dagokionez; gehienbat, iraunkortasun ahuleko printzipioarekin bat egiten duelako. Gainera, planak ez du ingurumen ikuspegia transbertsalizatzen, garrantzi handia ematen dion arren.

Esparru estrategikoak eta Gida Planak, beraz, lankidetzaren arloan bete beharreko helburuak ezartzen dituzte, baina, egia esateko, Gipuzkoako lankidetzaren deszentralizatua GGKEek egindako lankidetzaren proiektuen bitartez bideratzen da.

Horretarako GFAk lehiaketara eramaten ditu urtero lankidetzako proiektuak burutzeko funtsak. Beraz, urtero **Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikoak** argitaratzen dira. Oinarriak 2016-2023 aldirako aztertu ditugu, ingurumen iraunkortasunaren inklusioari dagokionez. Laburbilduz, ingurumen iraunkortasunak garrantzi handiagoa lortu du urte horietan, baina haren presentzia marjinala da oraindik ere.

Oinarri arautzaileek aldaketak izan dituzte 2016. urtetik, eta ingurumen iraunkortasuna modu argian sartu da horietan. Are gehiago, 2016az geroztik ingurumen irizpidea finantziarioa jasotzeko ezinbesteko baldintza bilakatu da. Baina hura ez da irizpide baztertzailerik benetan; izan ere, ingurumen ikuspegia txertatzeak proiektuen baremazioan puntu gehiago lortzeko balio du, baina ez da baztertzeko arrazoia. Proiektuak arrazoi administratiboengatik bakarrik baztertzen dira.

Bestalde, oinarrietan sartutako proiektu-taldearen artean batek ere ez du ingurumen iraunkortasuna helburu espezifikoko gisa jasotzen. Gainera, larrialdietarako laguntzako eta ekintza humanitarioko proiektuen taldean ez da ingurumen-krisia aipatzen; hau da, ingurumen iraunkortasuna mota horretako proiektuetatik kanpo geratzen da.

2020an, dirulaguntzak emateko deialdietara aurkeztutako proiektuen baremazio irizpideak aldatu ziren. Ordura arte, proiektuek puntuak jasotzen zituzten edozein ingurumen ekintza sartzeagatik; baina, 2020tik aurrera, ingurumen ikuspegiak osagai nabarmena badu bakarrik lortzen dute puntuazioa. Beraz, printzipioz, espezifikotasun handiagoa da, ez baita ekintza bakarra puntuatzen; aitzitik, ingurumen iraunkortasunaren arloko beste emaitzaren bat lortu beharra dago. Gainera, proiektuak lurraldean *0 inpaktua* izatea (proiektuaren beraren ingurumen inpaktua) puntuatzeari utzi zioten, 2020ra arte egiten zen bezala.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako (GEH) proiektuetan, ingurumen irizpideak Lankidetzako proiektuetan baino garrantzi handiagoa du, baina ez da espero litekeen bezain garrantzitsua ere. Izan ere, GEHko proiektuetan zenbait irizpideak (emakumeen eskubideak eta giza eskubideak) ingurumen iraunkortasunak baino garrantzi handiagoa dute. Beraz, esan daiteke azken ingurumen irizpidea bigarren maila batean dagoela. Gainera, kontuan hartu behar dugu deialdien oinarriek ez dituztela irizpide espezifikoak zehazten ingurumen iraunkortasunari dagokionez. Horrek zailago egiten du proiektu bakoitzean irizpidearen aplikazioa baloratzea, eta, ondorioz, ezin da objektiboki baloratu ekintza jasagarriak diren ala ez.

3.2. Lankidetzara bideratutako funts publikoak

Atal honetan EAEko zenbait administrazioek lankidetzara bideratutako funts publikoak aztertuko ditugu. Horretarako, bada, Euskal Lankidetzara Publikoaren Atarian dagoen informazioa erabiliko dugu. Egindako azterketa lau atal hauetan banatzen da: (1) EAEko administrazio publikoek bideratutako funtsak; (2) Gipuzkoako administrazio publikoek bideratutako funtsak; (3) EAEko administrazio publikoek Gipuzkoako GGKEetara bideratutako funtsak; (4) GFAk bideratutako funtsak.

3.2.1. EAEko administrazio publikoek bideratutako funtsak

2016tik 2022ra bitartean, EAEko administrazioek 700 milioi euro baino gehiago eman zituzten lankidetzara proiektuetarako (8. taula). Hortaz, urteko batezbestekoa 100 milioi eurokoa izan zen gutxi gorabehera. Ingurumen ikuspegia duten proiektuek emandako funts guztien % 15,6 hartzen dute, eta, zehazki, ingurumenaren babesari buruzko GLB kode espezifikoak (GLB 410) duten proiektuek % 1 baino gutxiago dute. Horrek erakusten du ingurumen iraunkortasunak garrantzi kuantitatibo eskasa duela euskal administrazioetatik finantziatutako jasoak duten garapenerako proiektuetan.

Aurrekoarekin batera, garrantzitsua da GLB 151 eta 998 kodeak dituzten proiektuen egoera aztertzea; izan ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, GLB kode horien barruan ere ingurumen ikuspegia duten proiektuak daude. Hala, GLB 151 koderak (Gobernua eta Gizarte Zibila) bideratutako funtsen kasuan, proiektu horiek % 41 dira; eta GLB 998 koderak (Esleitu gabe edo zehaztu gabe) bideratutako funtsen kasuan, % 12 (1. grafikoa). Kode horien barruan dauden proiektuek funts guztien erdia baino gehiago hartzen dute, eta sektore horiek, printzipioz, ez dute ingurumen iraunkortasuna lehentasuntzat hartzen. Beraz, ingurumen iraunkortasuna ez da euskal administrazioek finantzatutako garapenerako proiektuen lehentasuna.


Bestalde, ingurumen ikuspegia omen duten GLB kodeetara bideratutako funtsei dagokienez, gehienak Nekazaritzara (GLB 311) bideratzen dira, eta horren atzetik Ur hornidura eta saneamendura (GLB 140). Lehenengo taldeak % 56 hartzen du eta bigarrenak % 35. Hau da, kode bi horiek bakarrik ingurumen ikuspegiak duten funts guztien % 90 baino gehiago hartzen dute (2. grafikoa). Beraz, landutako ingurumen kontuak arlo horietara mugatzen dira, eta, gainera, gogoratu behar dugu GLB 151 eta 998 kodeetako proiektuek ez dutela zertan ingurumen iraunkortasunarekin bat etorri.

8. Taula. EAeko administrazio publikoek emandako funtsen banaketa, GLB kodearen arabera, 2016-2022

GLB	GLB deskribapena	Zenbatekoa	Ehunekoa
140	Ur hornidura eta saneamendua	38.906.396 €	% 5,5
230	Energiaren ekoizpena, banaketa eta eraginkortasuna	0 €	% 0,0
311	Nekazaritza	62.062.899 €	% 8,8
312	Basozaintza	1.715.178 €	% 0,2
313	Arrantza	3.007.828 €	% 0,4
322	Erauzketa industriak	0 €	% 0,0
520	Garapenerako elikadura-laguntza / Elikadura segurtasunerako laguntza	4.751.621 €	% 0,7
	Ingurumen ikuspegidun GLB-ak guztira	110.443.922 €	% 15,6
410	Ingurumenaren babes orokorra	7.815.685 €	% 1,1
151	Gobernua eta Gizarte Zibila, orokorra	285.167.826 €	% 40,6
998	Esleitu gabe / Zehaztu gabe	86.491.028 €	% 12,3
	Gainontzeko GLB-ak	214.178.774 €	% 30,4
	Guztira	704.097.235 €	% 100,0


Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

1. Grafikoa. EAeko administrazio publikoek emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022



Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

2. Grafikoa. EAEko administrazio publikoek ingurumen ikuspegidun GLB kodea duten proiektuei emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022



Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

3.2.2. Gipuzkoako administrazio publikoek bideratutako funtsak

Gipuzkoako administrazio publikoek (GFA, Donostiako Udala eta Euskal Fondoaren bitartez parte hartzen duten Gipuzkoako Udalak) denboraldi horretan (2016-2022) 65 milioi euro ingururekin finantzatu zituzten lankidetzako proiektuak, (2. taula), hau da, urtean 9,2 milioi euro, batez beste. EAEko administrazioek emandako zenbatekoarekin alderatuta, egoera antzekoa da, baina Gipuzkoan ingurumen ikuspegiak are garrantzi txikiagoa du. Batez ere, ingurumen babesari buruzko GLB 410 kodeari dagokionez; izan ere, Gipuzkoako administrazioek % 0,2 bakarrik bideratu dute GLB kode horretara, hau da, EAEn bideratutakoa (% 1,1) baino askoz gutxiago. Ingurumen ikuspegidun GLB kodea duten proiektuen agregatua ere gutxiago da Gipuzkoaren kasuan. Izan ere, Gipuzkoan % 10 inguru da eta EAE osoan % 15,6. Beraz, zentzu horretan ingurumen ikuspegiak garrantzi erlatibo gutxiago du Gipuzkoan EAEn baino.

GLB 998 kodea duten proiektuak, hau da, esleitu gabe edo zehaztu gabe, % 21 dira. Beraz, ia bikoiztu egiten dute beren pisua EAEko egoera orokorrarekin alderatuta. Beste alde batetik, GLB 151 kodea dutenak, hau da, Gobernua eta gizarte zibila, % 40 inguruan kokatzen dira (3. grafikoa). Azpimarratu nahi dugu GLB kode bietan ingurumen ikuspegiak duten proiektuak ere izan daitezkeela, eta horrek ingurumen iraunkortasunaren garrantzia igotzea ekarriko luke; baina ezin dugu hori ziurtatu ez baitugu informazio zehatzagorik. Nolanahi ere, datuek erakusten dute


ingurumen iraunkortasuna eta ingurumen helburuen txertaketa ez dela lehentasun bat Gipuzkoako administrazioen funtsak jasotzen duten proiektuen artean.

Ingurumen ikuspegia duten GLB kodeetara bideratutako funtsak aztertzean, egoera EAEkoaren antzekoa dela ikusten dugu. Kasu honetan, funtsak bi GLB kodetan zentratzen dira batez ere: GLB 311, Nekazaritza; eta GLB 140, Ur hornidura eta saneamendua. Horietako lehenak % 68 hartzen du eta bigarrenak % 22. Berriz ere, kode bi horietako proiektuek bakarrik ingurumen ikuspegidun GLB kodeetara bideratutako funtsen % 90 baino zertxobait gehiago hartzen dute (4. grafikoa). Gainontzeko funtsak beste bi koderen artean banatzen dira: 313, Arrantza; eta 520, Elikadura segurtasuna. Oro har, ingurumenaren problematika sektore jakin batzuei lotuta dago eta ez da beste sektore batzuetara zabaltzen.

9. Taula. Gipuzkoako administrazio publikoek emandako funtsen banaketa, GLB kodearen arabera, 2016-2022			
GLB	GLB deskribapena	Zenbatekoa	Ehunekoa
140	Ur hornidura eta saneamendua	4.428.684 €	% 6,9
230	Energiaren ekoizpena, banaketa eta eraginkortasuna	0 €	% 0,0
311	Nekazaritza	1.428.684 €	% 2,2
312	Basozaintza	0 €	% 0,0
313	Arrantza	95.000 €	% 0,1
322	Erauzketa industriak	0 €	% 0,0
520	Garapenerako elikadura-laguntza / Elikadura segurtasunerako laguntza	538.228 €	% 0,8
	Ingurumen ikuspegidun GLB-ak guztira	6.490.596 €	% 10,2
410	Ingurumenaren babes orokorra	127.975 €	% 0,2
151	Gobernua eta Gizarte Zibila, orokorra	26.184.765 €	% 40,3
998	Esleitu gabe / Zehaztu gabe	13.366.815 €	% 20,5
	Gainontzeko GLB-ak	18.719.311 €	% 28,9
	Guztira	64.889.462 €	% 100,0


Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

3. Grafikoa. Gipuzkoako administrazio publikoek emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022



Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

4. Grafikoa. Gipuzkoako administrazio publikoek ingurumen ikuspegidun GLB kodeak dituzten proiektuei emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022



Iturria: egileak Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

3.2.3. EAEko administrazio publikoek Gipuzkoako GGKEetara bideratutako funtsak

2016-2022 aldian, Gipuzkoako GGKEek 124 milioi euro jaso zituzten EAEko administrazio publikoen eskutik (10. taula); hau da, urtean 17,7 milioi, batez beste. Zenbateko hori Gipuzkoako administrazioek emandakoa baino handiagoa da; hortaz, argia da lurralde horretako GGKEek beste administrazio batzuetara ere jotzen dutela beren proiektuak aurrera eraman ahal izateko.


Ingurumen ikuspegidun GLB kodea duten proiektuek jasotako funtsak funts guztien % 13 inguru dira; eta GLB 151 eta 998 kodeek horien % 55 eta % 13 hartzen dute, hurrenez hurren (5. grafikoa). Beraz, Gipuzkoako GGKEek ingurumen ikuspegidun proiektu gutxi garatu dituzte. Hain zuzen ere, Ingurumenaren babes orokorrari dagokion GLB kodea (GLB 410) aipatutakoaren erakusgarri da, helburu horretako proiektuek funts guztien % 1 baino ez baitute hartu.

Ingurumen ikuspegidun GLB kodeak dituzten proiektuei dagokienez, Nekazaritza (GLB 311) izan da garrantzi erlatibo handiena izan duena, eta horren atzetik (nahiko urrun) Ur hornidura eta saneamendua (GLB 140) dugu (6. grafikoa). Horien atzetik, beste bi GLB kodetara bideratu dira funtsak: 313 (Arrantza) eta 520 (Elikadura segurtasuna). Berriz ere, ingurumen kontuak ez dira lehentasuna, eta ingurumen iraunkortasuna sektore jakin batzuetan soilik ageri da.

10. Taula. EAEko administrazio publikoek Gipuzkoako GGKEei emandako funtsen banaketa, GLB kodearen arabera, 2016-2022			
GLB	GLB deskribapena	Zenbatekoa	Ehunekoa
140	Ur hornidura eta saneamendua	3.424.763€	% 2,8
230	Energiaren ekoizpena, banaketa eta eraginkortasuna	0€	% 0,0
311	Nekazaritza	10.879.439€	% 8,7
312	Basozaintza	0€	% 0,0
313	Arrantza	95.000€	% 0,1
322	Erauzketa industriak	0€	% 0,0
520	Garapenerako elikadura-laguntza / Elikadura segurtasunerako laguntza	390.356€	% 0,3
	Ingurumen ikuspegidun GLB-ak guztira	14.789.558€	% 12,9
410	Ingurumenaren babes orokorra	1.209.064€	% 1,0
151	Gobernua eta Gizarte Zibila, orokorra	68.253.747€	% 54,8
998	Esleitu gabe / Zehaztu gabe	16.297.522€	% 13,1
	Gainontzeko GLB-ak	23.929.288€	% 19,2
	Guztira	124.479.179€	% 100,0


Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

5. Grafikoa. EAeko administrazio publikoek Gipuzkoako GGKEei emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022



Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

6. Grafikoa. EAeko administrazio publikoek ingurumen ikuspegidun GLB kodeak dituzten Gipuzkoako GGKEen proiektuei emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022



Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

3.2.4. Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratutako funtsak

2016-2022 aldian, GFak 41 milioi euro bideratu zituen lankidetzaren proiektuetara (11. taula), hau da, urtean 6 milioi euro batzuk beste. Beraz, Gipuzkoako administrazioek lankidetzarako emandako funtsen % 65 inguru GFatik datoz. Kasu honetan, ingurumen ikuspegia duten proiektuak funtsen % 5era ere ez dira heltzen, eta Ingurumen babes orokorrera (GLB 410) bideratutako funtsak ia zero dira, zehazki,

% 0,2. Ehuneko horiek erakusten duten bezala, administrazio guztien artean, GFA da ingurumen-ikuspegiarekin emandako finantzaketak garrantzi erlatibo txikiena duen administrazioa. GLB 151 eta 998 kodea duten proiektuek ingurumen arloko GLB kodeetakoak baino garrantzi handiagoa dute: GLB 151 kodeak funtsen % 44 hartzen du eta GLB 998 kodeak % 22. Hau da, kode horiek garrantzi erlatibo handiena dute (7. grafikoa). Aurretik aipatu da kode horietan ere ingurumen ikuspegia duten proiektuak egon daitezkeela, baina ez dugula hori egiaztatzeko informazio nahikorik. Nolanahi ere, agerikoa da ingurumen iraunkortasuna ez dela lehentasunezkoa GFAk finantzaturako lankidetzat proiektuetan.


Gainera, ingurumen arloko GLB kodeen kasuan, berriz ere ikusten dugu horietako gehienak sektore jakin batera bideratzen direla (8. grafikoa): GLB 140, Ur hornidura eta saneamendua (% 53). Horren atzetik GLB 311 dugu, Nekazaritza (% 33). Horiez gain, gainontzeko funtsak beste bi kode hauetara bideratzen dira: Arrantza (GLB 313) eta Elikadura segurtasuna (GLB 520).

11. Taula. GFAk emandako funtsen banaketa, GLB kodearen arabera, 2016-2022

GLB	GLB deskribapena	Zenbatekoa	Ehunekoa
140	Ur hornidura eta saneamendua	1.050.254 €	% 2,5
230	Energiaren ekoizpena, banaketa eta eraginkortasuna	0 €	% 0,0
311	Nekazaritza	654.661 €	% 1,6
312	Basozaintza	0 €	% 0,0
313	Arrantza	95.000 €	% 0,2
322	Erauzketa industriak	0 €	% 0,0
520	Garapenerako elikadura-laguntza / Elikadura segurtasunerako laguntza	178.000 €	% 0,3
	Ingurumen ikuspegidun GLB-ak guztira	1.977.915 €	% 4,9
410	Ingurumenaren babes orokorra	77.983 €	% 0,2
151	Gobernua eta Gizarte Zibila, orokorra	18.358.866 €	% 44,1
998	Esleitu gabe / Zehaztu gabe	9.268.459 €	% 22,3
	Gainontzeko GLB-ak	11.950.915 €	% 28,7
	Guztira	41.634.138 €	% 100,0


Iturria: egileak, Euskal Lankidetzat Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

7. Grafikoa. GFAk emandako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022



Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

8. Grafikoa. GFAk ingurumen ikuspegidun GLB kodeak dituzten proiektuetara bideratutako funtsak guztira, GLB kodearen arabera, 2016-2022



Iturria: egileak, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz.

3.3. Lankidetzako proiektuen orientazioa eta irismena

Atal honetan, GFAren finantziario deialdietara aurkeztutako lankidetzaren proiektuen azterketa egingo dugu 2016-2023 aldirako. Zehazki, lehenik, Nazioarteko Lankidetzako proiektuak (aurrerantzean, Lankidetzako proiektuak) aztertu ditugu, eta, bigarrenik, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuak (aurrerantzean, GEHko proiektuak).

3.3.1. Lankidetzako proiektuak

Lankidetzako proiektuen azterketak erabili den eduki-matrizearen egiturari jarraituko dio (ikus 2. taula): (1) puntuazioa, (2) ikuspegia, (3) GLB sektorea, (4) ingurumen sektorea, (5) problematika, (6) ekintzak, (7) emaitzak, (8) tokiko erakundearen profila eta (9) xede-biztanleria.

1. Lankidetzako proiektuek jasotako **puntuazioari** dagokionez, lehenik, egoera globala aztertuko dugu, eta, bigarrenik, azterketa urte-bloke hauen arabera egingo dugu: 2016-2019 eta 2020-2023. Izan ere, 2020. urtean ingurumen iraunkortasunaren balorazio-irizpidea aldatu zen. Urte horretan, bada, proiektuan aurreikusitako jardueretan ingurumen iraunkortasunaren presentzia baloratzeaz gain, hura osagai nabarmen gisa tratatzea eskatuko zela erabaki zuten.

Azterketa orokorrean, deigarria da ingurumen iraunkortasunak duen puntuazio baxua; izan ere 10etik 2-3 puntu lortzen ditu urte guztietan. Horrek esan nahi du ingurumen iraunkortasuna ez dela proiektuetan txertatzen kasu gehienetan. Azterketa bera egiten badugu baina ingurumen iraunkortasuna kontuan hartzen duten proiektuen puntuazioari begiratuz, ikusiko dugu puntuazioak 10etik 6,6 inguruan dabilzala. Beraz, 5 baino handiagoa bada ere, nahiko baxua da oraindik, eta horrek adierazten du kasu gehienetan ingurumen iraunkortasuna modu partzialean txertatzen dela. 2019an, ingurumen iraunkortasunaren arloko puntuaziorik altuena lortu zen, eta hura inflexio-puntua izan zen, urte horretan goranzko joera batetik beheranzko batera igaro baitzen. Joera aldaketa hori ingurumen iraunkortasunaren irizpidearen baremazio aldaketaren ondorio bat izan daiteke.

Hala, blokeka aztertzean (2016-2019 eta 2020-2023), ingurumen iraunkortasunari emandako garrantziaren aldaketa atzeman daiteke, ikuspegi horrek presentzia handiagoa baitu bigarren blokean lehenengoan baino. Hala, 2016-2019 aldian, proiektuen % 44 inguruk ingurumena aipatzen dute jardueraren batean, eta, 2020-2023 aldian, ehuneko hori % 52 baino pixka bat gutxiago da. Azken bloke horretan, 2021eko puntuazio altuak eragiten du; izan ere, urte horretan, ingurumen iraunkortasuneko puntuazioa handiagoa da onartutako proiektuetan, deialdira aurkeztutako proiektu guztietan baino. Ezaugarri hori 2021etik aurrera mantenduko da; baina aurretik kontrakoa gertatzen zen, irizpide horren puntuazioa handiagoa baitzen aurkeztutako proiektuetan, onartutakoetan baino. Joera aldaketa hura 2020an egindako baremazio aldaketaren ondorio izan daiteke. Izan ere, 2019an modu positiboan baloratzen zen ingurumen ikuspegia zuten ekintzak sartzea, baina 2020tik aurrera, hura osagai nabarmena denean bakarrik hartuko dira kontuan. Beraz,

uler dezakegu *ingurumen arloko exijentzia* maila handitzeak proiektua onartua izateko edo ez izateko aukeran eragiten duela.

2. Proiektuen **ikuspegiari** dagokionez, bereizi egin da ingurumen iraunkortasunaren printzipioa transbertsalki txertatzen den, haren helburu nagusietako bat den edo helbururen batean sartzen den. Hala, ikusi dugunez, ingurumen iraunkortasuna ez da transbertsala oro har, eta proiektu gehienetan ez da helburu nagusietako bat. Aitzitik, helburuetako baten barruan sartzen da kasu gehienetan (12. taula). Gainera, ingurumen ikuspegia duten proiektuak proiektu guztiekin alderatzean, eragina are txikiagoa dela ikusten da; izan ere, horiek ez dira aurkeztutako proiektuen % 48ra ere heltzen.

12. Taula. GFaren deialdietara aurkeztutako Lankidetzako proiektuetako ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiaren azterketa, 2016-2023

	Ingurumen ikuspegia							
	Transbertsala		Helburu nagusia		Osagai nabarmena		Guztira	
Ingurumen ikuspegiarekin aurkeztutako proiektuak								
Ingurumen ikuspegiarekin aurkeztutako proiektu guztiak (kopurua eta %)	32	% 18,2	28	% 15,6	116	% 65,9	176	% 100,0
Ingurumen ikuspegidun proiektuen % aurkeztutako proiektuen artean	% 8,9		% 7,8		% 32,1		% 47,8	
Ingurumen ikuspegiarekin emandako proiektuak								
Ingurumen ikuspegiarekin emandako proiektu guztiak (kopurua eta %)	21	% 20,2	12	% 11,5	75	% 72,1	108	% 100,0
Ingurumen ikuspegiarekin emandako proiektuen % aurkeztutako proiektuen artean	% 5,8		% 3,3		% 20,8		% 29,9	

Iturria: egileak, GFaren deialdietara aurkeztutako proiektuetan oinarrituta.

2016-2019 aldian, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia, oro har, proiektuen helbururen batean sartzen da, eta ez ditugu ia aurkitzen ikuspegi hori transbertsalki txertatzen dituzten proiektuak edo ingurumen iraunkortasuna helburu nagusi duten proiektuak. Hala, ingurumen iraunkortasuna ikuspegi transbertsala edo helburu nagusi gisa duen proiektu bakoitzeko hiru proiektu

daude ingurumen ikuspegia osagai nabarmen gisa dutenak. 2020ko baremazio-irizpide aldaketak ez du joera hori aldatu; hau da, ingurumen iraunkortasuna ikuspegi transbertsala edo helburu nagusi gisa duten proiektu gutxi daude, hura ekintza eta emaitza bakarrera mugatzen dituzten proiektuekin alderatuta. Hala ere, ratioa erdira murriztu da, hau da, ikuspegi transbertsala eta helburu nagusi gisa duen proiektu bakoitzeko 1,69 proiektu daude ingurumen iraunkortasuna osagai nabarmen gisa dutenak. Joera horiek onartutako proiektuen kasuan ere mantentzen dira. Beraz, ondoriozta dezakegu baremazio aldaketak, agian, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiaren txertaketa handiagoa ekarri duela proiektuen ikuspegiaren. Hala ere, ezin dugu ziurtatu, ez baita egin horri buruzko azterketa espezifikorik.

3. **GLB sektoreen** azterketari dagokionez, kontuan hartu behar dugu proiektu bakoitza GLB kode bakar batekin lotzen dela. Hala, proiektu gehienak GLB 151 (Gobernua eta gizarte zibila) kodearen barruan kokatzen dira, eta horretan proiektuek ez dute zertan ingurumen ikuspegia izan. Beraz, zentzu horretan, ondoriozta dezakegu ingurumen iraunkortasuna ez dela lehentasun bat lankidetzako proiektuetan. Hala ere, proiektuak GLB kode bakar batekin lotzean proiektuaren lehentasuna ezartzen da, baina proiektuek ingurumen iraunkortasunaren arloko ekintzak izan ditzakete, lehentasuna ez badira ere. Ingurumen iraunkortasuneko ikuspegi nabarmenagoa duten GLB sektoreetako proiektuak aztertzean, 3.2 atalean egindakoaren ildotik, kasu gehienetan GLB 311 (Nekazaritza) kodeari dagozkiola ikusten da, eta, hain zuzen, kode horrek ez du zertan ingurumen iraunkortasuneko ekintzak eduki. Hortaz, proiektuen GLB sektoreak ikusita, ingurumen iraunkortasuna ez da lehentasun bat.
4. Beste alde batetik, proiektuetan landutako **ingurumen sektoreak** aztertzean, ikusten da kasu gehienetan proiektuak sektore jakin batera bideratzen direla, eta ez dutela aldi berean hainbat sektoretan jardun nahi. Proiektuek sektore batean baino gehiagotan jardun nahi duten kasuetan, sektore horiek lotura dute gaiari dagokionez. Jakina, horrek loturarik ez omen duten sektoreetan jarduteko zailtasuna erakusten du.

Ingurumen iraunkortasunarekin zerikusia duten honako sektore hauetan egiten da lan gehien: elikadura eskubidea, ingurumen hezkuntza, lurraldearen defentsa eta ur hornidura. Joera hori aztertutako aldian zehar mantentzen da. Elikadura eskubidea da proiektu gehien biltzen dituen sektorea, izan ere, proiektu askok lotura dute elikadura burujabetzarekin eta agroekologiako eta nekazaritzako proiektuekin. Halaber, prestakuntzara eta sentsibilizaziora bideratutako proiektuak daude, eta ingurumen hezkuntza da proiektu gehien biltzen dituzten sektoreetako

bigarrena. Hala, sektore horrek gaiaren garrantziari buruzko kontzientzia piztu eta ingurumen iraunkortasunaren hainbat alderditan gaitasunak garatu nahi ditu. Lurraldearen defentsari dagokionez, komunitate indigenei eta estraktibismoaren biktimei zuzendutako proiektu kopuru handia dago. Estraktibismo horren atzetik enpresa multinazionalak egon ohi dira. Azkenik, ur hornidurak ere garrantzia du, eta ur azpiegiturako eta kudeaketako proiektu ugari daude. Ur baliabideek nekazaritzarekin eta inguruaren osasungarritasunarekin duten loturak, bada, sektore horretan proiektu gehiago egotea azaltzen du.

5. Landutako sektoreek harreman zuzena dute aurretik identifikatutako ingurumen iraunkortasuneko **problematikekin**. Gehien identifikatu diren arazoak elikadura burujabetzarako eskubidearen berme eza, klima aldaketa eta lurren narriadura dira; baina horien gainetik lurraren defentsarik eza aurkitzen dugu, hau da, lurra eta hura defendatzen duten pertsonak babestuta ez egotea.

Finantziarioa lortu duten proiektuak soilik aztertzean, egoera desberdina da. Alde batetik, aipatutako arazoen proportzioa handitzen da (elikadura eskubidea, ingurumen hezkuntza, lurraldearen defentsa eta ur hornidura), eta, gainera, higienezaren eta osasungarritasunaren arazoa handitzen eta lehentasun bilakatzen da, aurrekoekin batera.

Lehentasunezko arazo horiekin alderatuta, beste batzuk oso kasu gutxitan identifikatzen dira, hala nola, energiari eta ekimen jasangarrien urritasunari lotutakoak. Horien lanketa trantsizio energetikora bideratu beharko litzateke, hura ingurumen iraunkortasunaren alderdi garrantzitsu bat baita. Gainera, aipatu beharra dago, lurraren defentsa ezarekin lotuta, megaproiektuek ingurumen inpaktuak eragiten dituztela, eta hori ekimen ez iraunkorrekin zuzenean lotuta dagoela.

6. **Jardueren** azterketa sektoreei buruz esandakoarekin bat dator; izan ere, oro har, elkarrekiko lotura dute. Jarduera nagusiak prestakuntza eta sentsibilizazioa dira, horiek ingurumen iraunkortasunaren sektore guztiak transbertsalizatzen baitituzte. Bigarrenik, azpiegitura eta ekimenak babesteko ekintza asko aurkitzen ditugu; izan ere, ekintza horiek ingurumen segurtasunerako eskubidearen eta ur horniduraren sektoreekin lotuta daude. Horiek dira sektore nabarmenenak. Azkenik, ekintza asko antolakuntza indartzekoak eta eragin politikokoak dira, eta lurralderako eskubidearekin lotuta daude. Hori ere sektore nabarmena da.
7. Aurrekoa kontuan hartuta, proiektuek aurreikusten dituzten **emaitzak** beren jarduerekin lotuta daude. Lehenik, gaitasunak indartzea da gehien bilatzen den emaitza, hau da, erakundeak trebatzea, sentsibilizatzea eta indartzea. Hurrengo

emaitza xede-komunitate askoren helburu den elikadura burujabetza indartzea da, batez ere agroekologiaren, nekazaritzaren eta nutrizioaren esparruko proiektuetan. Azkenik, inguru osasungarri batean bizitzeko eskubidearekin zerikusia duten emaitzak ere aurkitzen ditugu, esate baterako, ura eskuratzeko aukerarekin, hondakinen kudeaketarekin eta birziklatzearekin zerikusia duten proiektuetan.

8. Lankide diren **tokiko erakundeei** dagokienez, gehienak garapenaren alde lan egiten dute, oro har, feminismoa eta ingurumen iraunkortasuna bezalako espezialitate zehatzik gabe. Azken talde horretan, bada, askotariko erakundeak ditugu, baina gehienak baserriaren eskubideen, landa garapenaren edo nekazaritzako langileak babestearen alde lan egiten dute. Hala, ingurumen iraunkortasunaren aldeko espezializazioa oso eskasa da tokiko erakundeen artean.
9. Azkenik, **xede-biztanleriaren** profilak ikertu dira, kasuren batean proiektuak ingurumen iraunkortasunarekin lotutako profiletara bideratzen diren egiaztatzeko. Analiaren arabera, kasu honetan, xede-biztanleria Lankidetzako proiektu gehienetan dagoen berbera da, horiek, oro har, pobrezia eta desparekotasunari aurre egitera bideratzen baitira. Beraz, helburua talde zaugarrienak eta babesgabeenak artatzea da.

Aurreko guztia ikusita, ondoriozta dezakegu ingurumen iraunkortasuneko ikuspegia duten proiektuak ez direla proiektu-mota ezohikoa, eta horien helburuak ez direla oso desberdinak bestelako proiektuenekin alderatuta. Hala, ingurumen ikuspegidun proiektuak lankidetzaren kontzepzio tradizional batean oinarritzen dira; izan ere, oro har, gizarte garapena bermatzeko eta pobreziarekin eta desparekotasunekin amaitzeko helburua dute. Hala ere, ingurumen iraunkortasunarekin lotutako arazoei aurre egiteko askotariko ekintzak proposatzen dituzte. Alde batetik, proiektu batzuek herritarren eskubideak eta horien kalitatea bermatzeko helburua dute. Bestetik, lurraldea defendatzeko ekintza politikoak ere daude, eta horiek, beren izaeragatik, pertsonen gaitasunak indartzeko eta herritarrek ingurumena babesteko prozesu politikoetan duten eragina handitzeko helburua dute.

3.3.2. **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuak**

GEHko proiektuen kasuan ere, azterketa egiteko erabili den eduki matrizearen egiturari jarraituko diogu (ikus 3. taula): (1) puntuazioa, (2) ikuspegia, (3) problematika, (4) ekintzak eta (5) emaitzak.

1. Ingurumen ikuspegidun GEHko proiektuek lortutako **puntuazioei** buruzko gauzarik nabarmenena ingurumen iraunkortasunaren irizpidean izandako goranzko joera da, nahiz eta aztertutako azken urtean (2023) puntuazio horrek behera egin duen. 2016-2019 eta 2020-2023 aldiak konparatzean, Lankidetzako proiektuen antzeko egoera ikusten dugu; hau da, ingurumen iraunkortasunari dagokion baremazio-irizpidea aldatu ondoren, horrelako proiektuen presentzia areagotu egiten da. Lehenengo aldian, proiektuen % 48,5ek ingurumen iraunkortasuneko jardueraren edo elementuren bat dute, eta bigarren aldian, aldiz, % 61ek. Beste alde batetik, ingurumen iraunkortasuneko irizpidea duten onartutako proiektuen puntuazioa aurkeztutako proiektu guztien puntuazioa baino altuagoa da, eta ez soilik onartutako guztiena. 2017. eta 2019. urteak dira salbuespen bakarra, horietan kontrakoa gertatzen baita. GEHko proiektuetan ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia beti nabarmena izan den arren, 2020ko baremazio irizpidearen aldaketaren ostean, gero eta proiektu gehiagok txertatzen dute ikuspegi hori.
2. Azterketak erakusten duenez, GEHko proiektuetan ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia ez da jardueraren bat sartzera mugatzen. Aitzitik, ikuspegia transbertsala edo helburu nagusi bat da kasu askotan. Kasu honetan, bada, ingurumen iraunkortasuna Lankidetzako proiektuetan baino garrantzitsuagoa da. Izan ere, ingurumen iraunkortasuna helburu nagusi edo elementu transbertsal gisa sartzen duten proiektu gehiago daude, hura jarduera edo helburu bakar batean sartzen dutenak baino. Joera hori areagotu egiten da ingurumeneko baremazio irizpidea aldatzearekin batera. Hain zuzen ere, 2016-2019 aldian, ikuspegi hura helburu nagusi edo transbertsal gisa duen proiektu bakoitzeko 0,68 proiektu daude ikuspegia jarduera edo helburu bakar batean sartzen dutenak; 2020-2023 aldian, ordea, ratio hori 0,46 da. Ikusten denez, baremazio irizpidearen aldaketak eragina du proiektu horietan, baina Lankidetzako proiektuetan baino gutxiago.

Hala ere, aurkeztutako proiektuen egoera orokorarekin alderatzean, garrantzi erlatiboa ez da hain nabarmena. Izan ere, guztien artean % 51 dira ingurumen ikuspegia duten GEHko proiektuak (13. taula). Hau da, GEHko proiektuetan ingurumen iraunkortasuna garrantzitsua da oraindik, baina horren garrantzi erlatiboak behera egin du, oro har. Proiektuen % 15ek transbertsalki txertatzen du ikuspegi hura, % 19k helburu nagusi gisa eta % 17k osagai nabarmen gisa.

13. Taula. GFaren deialdietara aurkeztutako GEHko proiektuetako ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiaren azterketa, 2016-2023

	Ingurumen ikuspegia							
	Transbertsala		Helburu nagusia		Osagai nabarmena		Guztira	
Ingurumen ikuspegiarekin aurkeztutako proiektuak								
Ingurumen ikuspegiarekin aurkeztutako proiektu guztiak (kopurua eta %)	29	% 28,4	36	% 35,3	32	% 31,4	97	% 100,0
Ingurumen ikuspegidun proiektuen % aurkeztutako proiektuen artean	% 15,4		% 19,2		17%		% 51,6	
Ingurumen ikuspegiarekin emandako proiektuak								
Ingurumen ikuspegiarekin emandako proiektu guztiak (kopurua eta %)	22	% 37,9	22	% 37,9	14	% 24,2	58	% 100,0
Ingurumen ikuspegiarekin emandako proiektuen % aurkeztutako proiektuen artean	% 11,7		% 11,7		% 7,5		% 30,9	

Iturria: egileak, GFaren deialdietara aurkeztutako proiektuetan oinarrituta.

3. **Problematikei** dagokienez, proiektuetan identifikatutako gizarte eta ingurumen arazoak bereizi dira, eta gizarte arazoak ingurumen arazoak baino nabarmenagoak direla ikusi da. Beraz, GEHko proiektuek Lankidetzako proiektuek baino ingurumen iraunkortasun ikuspegi nabarmenagoa badute ere, haiek ere desparekotasunak murriztera eta pobreziaen aurka borrokatzera bideratzen dira, eredu iraunkorren ikuspegitik eta eredu horien alde bada ere.

GEHko proiektuetarako, arazorik nabarmenena ingurumen krisi globala da, eta horren atzetik, hurbil, genero desparekotasuna eta arrazakeria. Ingurumen iraunkortasuneko ikuspegia duten proiektuen artean ingurumena arazo nagusia bada ere, horrekin batera beste gizarte arazo asko identifikatzen dira. Baina askotariko arazoak dauden arren, proiektuak batean eta bitan zentratzen dira. Azterketa honetarako, izan daitezkeen arazoen zerrenda luze bat egin da eta urte gutxitan % 15 baino gehiago identifikatu dira.

Ingurumen-krisi globalaren garrantzia gorabehera, ingurumenari dagozkion beste arazo batzuk ez dira behar bezala lantzen. Esate baterako, energiarekin lotutako arazo gutxi identifikatzen dira (hura aztertutako proiektuetako bitan

soilik hartzen da arazotzat). Kontsumo arduragabea ere ez da proiektu askotan lantzen, nahiz eta proiektu askok alternatibak sortu nahi dituzten gaur egungo kontsumo ereduaren aurrean.

Beraz, ondoriozta daiteke GEHko proiektuak, oro har, ez direla ingurumen iraunkortasuneko azterketa tekniko batetik bideratzen. Aitzitik, ingurumen iraunkortasuna desparekotasunetan eta pobrezian eragiten duen aldagaitzat hartzen dute, ingurumen krisiaren ondorioz.

4. GEHko proiektuen esparruan garatutako **ekintzak** kontzientziazio-sentsibilizazio (eta ondorioz komunikazio ere) eta hezkuntza/ikerketa itemen barruan kokatzen dira. Hori koherentea da hezkuntzaren eremuan zentratutako proiektuen izaerarekin berarekin, eta publiko zabal bati zuzenduta egotearekin. Aitzitik, Ekonomia Sozial eta Solidariotik, kontsumo arduratsutik edo antzeko ikuspegietatik eredu alternatiboak sortzera bideratzen diren ekintzak gutxienek dira. Halaber, adierazgarria da ekintza politikora bideratzen den ekimenik ia ez egotea; izan ere, proiektu horien helburua, oro har, ez da administrazio publikoak beren jokaera aldatzeko konbentzitzea. Beste alde batetik, egiten diren ekintza motak urtero mantentzen dira, ez baitira aldatzen GEHko proiektuak egiten dituzten GGKEak, ezta horien estrategiak ere. Azkenik, aipatu beharra dago oso proiektu gutxi burutzen dutela ekintza bat baino gehiago, eta, hori gertatzen denean, ekintza horiek gai bera lantzen dute eta izaera berekoak izaten dira.
5. **Emaitzen** azterketak erakusten duenez, emaitzek ekintzen joera bera dute; izan ere, proiektu gehienek emaitza bat edo bi bete nahi dituzte. Emaitza gehiago identifikatzen diren kasuetan, elkarrekiko lotura dute. Emaitza gehienak gizarte eraldaketara eta kontsumo arduratsua sustatzera bideratzen dira. Eta horren atzetik, ingurumen iraunkortasunarekin eta bizitza jasangarriekin lotutako emaitzak ditugu. Aztertutako aldian (2016-2023) kontsumo arduratsua sustatzeari lotutako emaitzak egonkor mantentzen diren bitartean, bizitzaren iraunkortasunari eta gizarte eraldaketari lotutakoak 2020tik aurrera agertzen dira, joera berri bat osatuz. Aitzitik, ekimen jasangarriak sortzearekin lotutako emaitzak dituzten proiektu gutxi aurkitzen ditugu.

Beste alderdi nabarmen bat da 2020an gizarte eraldaketarekin, bizitzaren iraunkortasunarekin eta ingurumena babesteko premiari buruzko kontzientziazioarekin lotutako emaitza kopurua hazi zela. Agian, horrek zerikusia du COVID-19ren pandemiarekin, eta krisi klimatikoaren larriagotzearekin ere. Gainera, lurraldea babestearekin eta defendatzearekin lotutako emaitzek

oso hazkunde handia izan dute, agian krisi sistemikoaren testuinguru honetan mugimendu horiei buruzko ezagutza handiagoa dagoelako. Izan ere, krisi sistemikoak tentsio ugari eragin ditu tokiko mailan, batez ere eredu estraktibistei aurre egiten dieten herri indigenekin.



4. Lankidetzako eragileen balorazioa



Kapitulu honetan, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiak garapenerako lankidetzan izan duen txertaketa landuko dugu ikuspegi kualitatibo batetik. Horretarako, azterketa bikoitza egin dugu Gipuzkoako lankidetzako eragileengandik jasotako informazioa erabiliz. Alde batetik, Gipuzkoako GGKEei egindako inkesta batetik hartutako informazioa aztertu dugu. Bestetik, Gipuzkoako lankidetzako hainbat eragileri egindako elkarrizketak aztertu dira.

4.1. GGKEei egindako inkesta

“Ingurumen iraunkortasuna Gipuzkoako lankidetzan” inkestak 5 kontrol-galdera eta 26 galdera ditu hiru bloketan banatuta (kanpo elementuak, barne elementuak eta potentzialtasunak). Inkesta posta elektronikoz bidali zitzaizen Gipuzkoan kokatutako 76 GGKEeri. Horietatik 26k erantzun zuten; hau da, erantzun-tasa % 34 izan zen. Erantzun-tasa nahikotzat jotzen bada ere, azterketa adierazgarriagoa izateko ondo legoke ehuneko hori handiagoa izatea. Inkesta jasotzeko epea hilabete pasatxokoa izan zen, hain zuzen ere, 2023ko azaroaren 2tik abenduaren 5era, alegia.

Azterketa inkestak erabiltzen dituen hiru bloke berberetan banatuko da. Egindako azterketa kuantitatiboarekin bat, inkestaren premisa honako hau izan da; alegia, ingurumen iraunkortasuna ez dagoela behar bezala txertatuta GGKEen proiektuetan. Hori dela eta, lehenik eta bigarrenik, ingurumen iraunkortasuna garapenerako lankidetzan txertatzea baldintzatzen duten kanpo eta barne elementuei buruz galdetu zaie erakundeei. Eta, hirugarrenik, ingurumen iraunkortasuna garapenerako lankidetzan sartzek etorkizunerako izan ditzakeen potentzialtasunei buruz galdetu zaie.

Kanpo elementuak

Ingurumen krisiari buruzko **kontzientziarioa** da ingurumen iraunkortasunaren ikuspegi proiektuetan sartzeko arrazo nagusietako bat. Inkestatutako GGKEen arabera, hori gertatzen da bai gizarteak hala eskatzen duelako (kasuen % 42tan adierazi dute hori), bai erakundeek berek ikuspegi horren garrantziari buruzko kontzientzia dutelako (kasuen % 81etan)³. Kontzientziario hori honako hauetan islatzen da: alde batetik, erakunde gehienek (% 54) beren estrategietan txertatuta dute ikuspegi hori; bestetik, ikuspegi hori hirugarren garrantzitsuena da GGKEentzat, giza eskubideen eta emakumeen eskubideen ikuspegi atzetik.

3 Kontuan izan erantzun anitzen kasuan, ehunekoen batura % 100etik gorakoa izan daitekeela.

Hala ere, erakundeek ez diote **baremazioari** garrantzi handirik ematen, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia proiektuetan txertatzeari dagokionez. Hain zuzen, 26 erakundeetatik 6k (% 23) bakarrik erantzun dute ikuspegi hori txertatzearen arrazoa puntuazio altuagoak lortzea dela. Zentzu horretan, erakundeetako batek dio baremazioa aurkeztuko den proiektuaren edukiaren baldintzatzaile bat besterik ez dela. Izan ere, zenbat eta altuagoa izan proiektu batek baremazioan jasotako puntuazioa, orduan eta finantziarioa lortzeko aukera gehiago izango ditu. Horrek, jakina, erakundeek beren diskurtsoa moldatzea ekar dezake ahalik eta puntu gehien lortzeko.

GFaren Gida Planaren inguruan duten iritziari buruz galdetzean, GGKEen % 54k diote ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia modu egokian txertatuta dagoela, kontuan hartuta helburu askori aurre egin behar diela. Hala, erakundeen % 23ren ustez, diskurtso aldaketa baten beharra dago. Ez dugu ahaztu behar Gida Plana Nazio Batuek sustatutako 2030 Agendaren eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) interpretazio esparruan oinarritzen dela.

Paradigma hori egokia da erakundeen % 31rentzat; aitzitik, % 54k uste dute diskurtso eraldatzaileagoak aukeratu behar direla. Hala, erakundeen % 65en ustez, 2030 Agendan beste diskurtso batzuk sartzeko lan egin behar da, horrek krisi sistemikoari aurre egiteko gai izan dadin eta Hego Globaleko mundu-ikuskerak har ditzan. Izan ere, erakundeen adierazpenetako batzuk ildo horretatik doaz: batek dio sistema kapitalistatik kanpo kokatzen diren diskurtso disruptiboak eraikitzeke lan egin beharra dagoela. Haren ustez, ikuspegi hura lehenetsua izan behar da, eta ezin da mugatu sistemaren efektuak edertzeko asmoa duten ekintza *berdeak* egitera. Beste erakunde batek gaur egungo ereduaren iraunkortasunik eza kritikatzan du, ez baitie desparekotasunen eta baliabide naturalen esplotazioaren benetako kausei aurre egiten. Beraz, paradigma hura modu kritikoa landu beharra dagoela adierazten du. Hala ere, erakundeen % 19k uste dute gaur egungo esparrua egokia dela.

Ikuspegi horren txertaketari dagokionez, GGKEen % 69k dimentsio soziala eta ekonomikoa ingurumen dimentsioaren gainera dagoela uste dute, eta % 23k ez dute uste hori horrela denik. Hala ere, ingurumen ikuspegiaren baztertzeko horren inguruan dauden iritziak desberdinak dira. Izan ere, erakundeen % 11ren ustez, horren arrazoa da ikuspegi horrek ez duela pertsonen ongizateak bezain beste garrantzia. Gainontzeko erakundeen ustez, aldiz, gaur egungo garapen ereduaren eta proiektuen baremazioa egiteko moduaren ondorioz, arlo ekonomikoa eta soziala ingurumen arloaren gainera lehenetsu dela da arrazoa. Aitzitik, Hegoaldeko erakundeentzat ingurumen iraunkortasuna lehenetsua dirudi; izan ere, kasuen % 79tan, erakundeek uste dute Hegoaldeko lankideek ikuspegi horren arabera lan

egiten dutela. Erakundeen % 15ek bakarrik uste dute Hegoaldeko lankideek beste lehentasun batzuk dituztela. GEHko proiektuetan neurri handiago batean txertatzen da ikuspegi hori; izan ere, inkestatutako erakundeen % 54ren ustez, horrelako proiektu eraldatzaileetan errazagoa da ingurumen iraunkortasuna lantzea, eta beste % 31ren ustez, hezkuntza proiektuak izaki errazago txertatzen da ikuspegi hori.

Azkenik, **administrazio publikoen** laguntza falta da muga nagusietako bat; izan ere, % 69ren ustez, horiek arau esparruaren konfigurazioa eta aldarrikapena besterik ez dute egiten.

Barne elementuak

Proiektuen **edukiari** dagokionez, inkesta honako hauek ezagutzera bideratu da: GGKEek zer ikuspegi lantzen dituzten, zer jarduera garatzen dituzten, eta espero diren emaitzak betetzen diren ala ez. Ikuspegiei dagokionez, garrantzitsuenak giza eskubideen eta emakumeen eskubideen ikuspegiak dira, erantzunen % 85ekin. % 42k, aldiz, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia lantzen dute (aipatu beharra dago ikuspegi bat baino gehiago landu daitezkeela aldi berean). Ikuspegi hura, bada, transbertsalki txertatzen dute kasuen % 81tan; aitzitik, % 23tan ekintza bakanetan txertatzen dute, % 31tan ekintza sektorialetan eta % 15etan helburu nagusi gisa. Aurrekoak frogatzen du ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia garrantzitsua dela erakundeentzat. Ikuspegi horren barruan egindako ekintzak hiru motatakoak dira batez ere: sentsibilizazioko eta hezkuntzako ekintzak (% 27), agroekologiako ekintzak (% 23) eta lurraldearen defentsa (% 15). Zenbait kasutan, beste izaera bateko ekintzak ere garatzen dira, baina ez da ohikoa. Azkenik, espero diren emaitzei dagokionez, erakunde gehienek horiek betetzen direla diote, baina hiruk emaitzen neurketa kontu konplexua dela aitortzen dute.

Erakundeentzat, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia txertatzeko edo baztertzeke ematen diren **arrazoia**k askotarikoak dira. Ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia baztertzeke arrazoien artean honako hauek dira nagusi: araudiaren argitasunik eza (% 35), ikuspegia baremazio irizpideetan sartzeko zailtasuna (% 35), finantziario eznahikoa (% 31). Hau da, izaera politikoko eta/edo administratiboko arrazoia dira. Bestalde, xede-biztanleriaren kontzientzia falta ez da hain arrazoi nabarmena (% 27), baina horrek agian hura lantzeko aukera txikiagoekin du zerikusia. Aitzitik, ikuspegia txertatzeko arrazoi nagusiak dira, alde batetik, erakunde gehienek beren plan estrategikoan sartu dutela hura (% 69), eta, bestetik, arrazoi etikoak (% 50). Hala, arrazoi politikoek eta/edo administratiboek ez dute garrantzi handirik, hau da, nazioarteko agendek, Gida Planak, baremazio irizpideek eta ingurumen legeek.

Erakunde baten ustez, proiektuen baremazioan ez lirateke ikuspegi guztiak sartu behar, proiektu sektorialek puntuazio txikiagoa lortzea ekartzen baitu horrek, eta, ondorioz, finantziatorik ez lortzeko arriskua baitute.

Erakundeek erabiltzen dituzten interpretazio esparruei edo **paradigmei** dagokienez, giza garapen iraunkorra da garrantzitsuena (% 54), eta, horren atzetik, 2030 Agenda eta GIHak (% 46), ekofeminismoa (% 46) eta lurraldearen defentsa eta giza eskubideak (% 46). Horiekin batera, garrantzia lortzen ari diren beste paradigma eraldatzaileago batzuk daude; hala nola, bizitzaren iraunkortasuna (% 35) eta gizarte eta ingurumen justizia (% 35). Gainera, beste bi erakundeek honako hau diote gaiari buruz: batek paradigma disruptibo baten alde egiten du, hain zuzen, Naturaren Eskubideen alde. Izan ere, haren ustez, beste paradigma batzuek sistema ekonomikoaren iraunkortasuna dute helburu, baina ez planetarena. Bigarren erakundeak azpimarratzen du diskurtso tradizionalak lankidetzan barneratuta daudela, eta Hegoalde Globaleko herrialdeek ekonomikoki hazi behar dutela oraindik.

Erakunde gehienek horren inguruko **prestakuntza** jasotzen dute maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, eta horietako gehienek ingurumen iraunkortasunaren gaian **espezializatutako** lagunen bat dute, bai langileen artean bai aliatuen artean.

Potentzialtasunak

Erakundeen **aldatzeko borondatea** argia da, izan ere, % 71k ingurumen iraunkortasuna beren jardueran gehiago txertatzeko lan egiten dute, eta erakundeen % 27k uste dute ikuspegi hura modu egokian txertatzen dutela dagoeneko. Zentzu horretan, erakundeen % 27k aldaketa hori egokia dela uste dute, eta % 46k aldaketa bat behar dela uste dute.

Ingurumen iraunkortasunaren aldeko eraldaketa bat lortzeko, erakundeek **aldaketa elementu** hauek aipatu zituzten: prestakuntza gehiago (% 46), beste erakunde batzuekiko aliantzak eta sareak erraztea (% 46) eta finantziario handiagoa proiektuetarako (% 42). GGKEetako baten ustez, lankidetzaren sistema klasikoaren paradigma aldatu beharra dago, Naturaren Eskubideen paradigmaren alde, bai erakundeetan eta administrazioan, bai hezkuntzan ere. Erakundeen % 81k beharrezkotzat jotzen dute ingurumen arloko prestakuntza, etorkizunerako konpetentzia delako edo proiektu gehiago eta hobeak garatzen lagunduko lukeelako. Bi erakundeek bakarrik uste dute ezagutza nahikoak dituztela ingurumen iraunkortasunaren arloan.

Iraunkortasunari dagokionez, funtsezkoak dira **energia eta baliabide naturalak**, eta ez dira behar beste lantzen. Erakundeen ustez hiru arrazoi daude: 2030 Agendak eta GIHEk ez dituztela horiek lehentasun gisa lantzen, jarduketa-eremu gisa baizik (% 31), GGKEen prestakuntza tekniko eskasa (% 27) eta ekintza bakanen bitartez lantzen direla (% 27).

Erakundeetako batzuek beste kontu batzuk ere azpimarratu dituzte. Alde batetik, erakundeek berek duten ezagutza baloratzen da, eta hori beste erakunde batzuetara eramatea interesgarria izan daitekeela onartzen da, baita beste arlo batzuetako erakundeetara ere. Bestetik, erakundeek lankidetzaren arloan egiten duten lanak ez du inolako baliorik ez bada politika publikoen koherentziaren alde lan egiten. Izan ere, lankidetzan ingurumen iraunkortasunaren alde lan egiten bada ere, enpresa batzuek natura bortxatzen jarraitzen dute.

4.2. Lankidetzako eragileei egindako elkarrizketak

Erakundeetara eta administrazio publikoetara egindako elkarrizketek ere hiru zati hauek izan dituzte: kanpo elementuak, barne elementuak eta potentzialtasunak. Elkarrizketen helburua izan da, alde batetik, inkestetan landutako alderdi batzuetan sakontzea, eta, bestetik, izaera kualitatiboko beste batzuk lantzea, hain zuzen ere, GGKEei zuzendutako inkestetan landu ez direnak. Elkarrizketen gidoia desberdina izan da erakundeetara edo administrazio publikoetara zuzendu diren kontuan hartuta. Bigarren kapituluari adierazi bezala, 6 erakunde eta 3 administrazio publiko elkarrizketatu dira. Elkarrizketak 2023ko azaroaren bigarren hamabostaldian eta abenduaren lehenengoan egin ziren.

Kanpo elementuak

Elkarrizketatutako erakundeen arabera, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia gero eta gehiago dago proiektuen edukian, baina horretarako arazoak desberdinak dira erakundearen arabera. Guztiak ados daude GGKEek eta xede-biztanleriak, Iparraldean zein Hegoaldean, ingurumen kontzientzia handiagoa dutela, eta horrek ikuspegiaren presentzia sustatzen duela. Hegoaldeko herriek eragin handia izan dute ikuspegi hori sartzeko, izan ere, ingurumenak garrantzi handia du horien mundu-ikuskeretan (E2, E3, E5, E6)⁴, baina Iparraldeko herritarren kontzientziazioa ere garrantzitsua izan da (E1, E4, E5, E6).

4 Metodologiari dagokionez zehatzak izateko asmoz, elkarrizketen kodeak (E1, E2, etab.) zehaztuko dira hala behar denean.

Inkestan jasotakoa ez bezala, zenbait erakundek aipatu dute proiektuen **baremazioan** ingurumen ikuspegia sustatzeko **egindako aldaketak** proiektuen edukiak aldatzea ekarri duela, horrek erakunde askorentzat duen eraginaren ondorioz, finantziarioa lortzeari dagokionez (E2, E4, E5, E6). Hala ere, ez dute adierazten zer neurritan eragiten duen baremazio aldaketa horrek. Izan ere, erakunde askorentzat gida bat besterik ez da proiektuen zer alderdi nabarmendu behar dituzten jakiteko (E7). Baremazioa erabakigarria da proiektuen diseinuan, eta, hortaz, baremazioaren aldaketarekin batera prestakuntza eman beharko litzateke aldaketa horren helburuak bete daitezen (E1, E2). Gainera, baremazioaren edozein aldaketak ez du zertan ingurumen iraunkortasunaren ikuspegia bultzatzeko egokia izan (E6). Zentzu horretan, genero ikuspegiarekin izandako prozesua esperientzia gisa balio dezake, zeren hura transbertsalizatzea lortu baitzen eta, hortaz, positibotzat jotzen da prozesua (E4).

Erakundeek **2030 Agendaren** inguruan duten iritzia, ingurumen ikuspegiaren txertaketaren baldintzatzaile gisa, lau taldetan sailka dezakegu: (1) ingurumenaren kontzeptua txertatzeko abiapuntua (E1); (2) gainditu ezin den *marra gorria* (E3); (3) garapenerako lankidetzako proiektuak justifikatzen laguntzen duen paradigma, baina beste paradigma disruptiboago batzuekin osatu behar dena (E4, E5, E6); eta (4) erreferente gisa hartu ezin den paradigma immobilista, beste paradigma disruptibo batzuekin ordezkatu behar dena benetako aldaketa lortzeko (E2).

Inkestan bezala, elkarrizketetan **ingurumen iraunkorraren** dimentsioei buruzko iritziak aurkitzen ditugu, eta krisi ekologikoa baino premiazkoagoak diren arazoak badaudela ere adierazten dute kasu bakar batean (E1). Gainontzeko erakundeek ingurumen dimentsioa sustatzeko premia onartzen dute (E2, E4, E5, E6), baina batek ohartarazten du hori ezin dela arazo ekonomikoen edo sozialaren gainetik egin (E3). Hala, ingurumen iraunkortasuna sustatzeko modu desberdinak aipatzen dituzte: egiturazko aldaketa baten bitartez (E2), garapen ereduaren eraldatuz eta enpresek ingurumen krisian dituzten efektuak landuz (E5), 2030 Agendaz harago doazen beste garapen-paradigma batzuen arabera lan eginez (E5), eta garapenaren dimentsioak dimentsio ekologikoaren menpe kokatzen dituen ikuspegiaren arabera lan eginez (E6).

Dimentsioei buruzko ikuspegiak argi adierazten dira lehenetsiak ezartzean. Ingurumen dimentsioa dimentsio ekonomiko eta sozialaren menpe kokatzen duten GGKE horiek beste arazo batzuk lehenetsi behar direla uste dute, hala nola gatazka belikoak eta horien efektuak (E1). Beste kasu batean, administrazioek ingurumen-inpaktu handiko eragileen jarduera hobeto kontrolatu behar dutela uste dute, hala nola enpresa transnazionalena (E3). Aitzitik, ingurumen arloan ibilbide handiena

duten erakundeen ustez, ingurumen iraunkortasunaren sustapena ez da aldi berean arazo sozialak eta ekonomikoak lantzearekin bateraezina. Hortaz, ingurumen dimentsioaren elementuak sar daitezke beste helburu batzuk dituzten proiektuetan (E2, E4, E5, E6).

Ikuspegi horiek ingurumen ikuspegia txertatzeko moduan islatzen dira. Erakunde baten iritziz, izaera sozialeko arazoak dituen gaur egungo testuinguruan, ezin da ingurumen ikuspegia txertatzeko lan egin (E1). Beste iritzi bat ingurumen ikuspegia txertatzeko aukera ematen duen lankidetzatresna espezifikoko bat sortzearen aldekoa da (E4), edo proiektu mota bakoitzerako deialdi desberdina eginez ere (E3). Beste batzuen ustez, ezin dira proiektuetan hainbat ikuspegi sartu eta aldi berean ingurumenen benetako eragina izan; beraz, proiektu bakar batean hainbeste alderdi transbertsalizatu behar ez izateko modu bat bilatu beharra dago (E6). Hala ere, erakunde batzuek proiektuetan ingurumen ikuspegia transbertsalizatzeko lan egiten dute (E2) eta bizitza eta natura zentralizat hartzen dituen ingurumen justiziaren ikuspegitik ere (E5).

Erakundeek estrategia desberdinak dituzte Iparraldean eta Hegoaldean, eta hainbat arrazoi dago horretarako. Alde batetik, Hegoaldeko herriek ekonomikoki hazi behar omen dute beren arazoak konpontzeko; Iparraldean, aldiz, ez omen dago hazteko beharrik, eta, hortaz, estrategia desberdinak erabiltzen dira (E1). Beste erakunde batzuek antzeko balorazioa egiten dute, baina, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko bereizketa baino gehiago, tokiko testuingurua kontuan hartu behar dela uste dute (E4, E5, E6); hala ere, testuinguru guztietan lan egitearen aldeko jarrera dago, modu iraunkorrean hazteko (E4). Halaber, proiektuak leku bakoitzeko mundu-ikuskeretara moldatzearen aldeko iritzia dago, Iparraldearen eta Hegoaldearen artean bereizi behar izan gabe (E6); eta Naturaren Eskubideak ere nabarmentzen dira, Iparralde eta Hegoaldearen artean ikuspegi komuna ehuntzeko paradigma gisa (E2). Azkenik, enpresa transnasionaletan eragiteko beharra dagoela azpimarratzen da berriz ere; izan ere, horiek Iparraldekoak izaten diren arren, ondorioak Hegoaldean jasaten dira (E3).

Administrazio publikoek ere onartzen dute ingurumen iraunkortasuna oztopatzen duten kanpo elementuak daudela. Horietako bat Europako araudia da, alderdi ekonomikoak ingurumen alderdien gainera lehenesten dituen (E7). Ikuspegi horren txertaketa oztopatzen duen beste alderdi bat administrazioaren egitura bera da; izan ere, burokraziak lana handitzen du eta lankidetzako proiektuei dagozkion alderdiak hobetzeko lana oztopatzen du (E8). Halaber, administrazioko langileek ez dute ikuspegi horri buruz prestakuntza nahikoa (E8, E9), eta are gutxiago hura ingurumen iraunkortasunarekin harreman zuzena ez duten jardueretan sartzeko moduari buruz (E9). Hala ere, arazo nagusia administrazioen borondate politiko eza da (E7, E8, E9).

Lankidetzaren sektorean ingurumen ikuspegia marjinala bada ere, aurretik aztertu bezala, ikuspegi hura ingurumenarekin zuzenean ez lotutako beste arlo batzuetan sartzeko lan egiten hasi dira administrazio publikoak (E7, E8, E9). Aurrerapausoak egon diren arren, oraindik zailtasunak aurkitzen dira tokiko lankideekin ikuspegi hori lantzeko (E9). Beste alde batetik, kontzeptu disruptiboekin lan egiten hasi da (adibidez, gorputzaren eta lurraldearen arteko lotura), baina sektore batzuetan zaila izaten da ingurumen arloko kontzeptuak sartzea (E9).

Aurretik aztertu dugun bezala, administrazioek, oro har, 2030 Agenda eta GIHak mantentzen dituzte beren plangintzaren erreferentzia kontzeptual gisa. Administrazio baten iritiz, esparru horrek ingurumen dimentsioa lehenesten du, eta hori administrazioaren jarduerara eramaten da, oro har, hainbat sailek ikuspegi hori partekatzen baitute (E7). Halaber, onartu egiten du esparru kontzeptual hura hobetzeko aukera dagoela, baina momentuz erreferente egokitzat jotzen du. Hala ere, beste administrazio batzuentzat, eta Agendaren unibertsaltasuna gorabehera, paradigma hura tokiko testuinguruetara moldatzeko zaila da, eta, hortaz, beste esparru eta ikuspegi batzuekin osatzen da (E8, E9). Kritikak dauden arren, onartu egiten dute paradigma horrek iraunkortasuna eta garapena lotzea lortu duela, eta Iparraldeak munduko arazoetan duen erantzukizuna ezartzen lagundu duela.

Bestalde, desazkundera paradigma alternatiboa da garapen eredu hegemonikoaren aurrean. Administrazioetako batek onartzen du ekonomikoki desaztea baliagarria izan daitekeela Iparraldearentz; baina ez Hegoaldearentzat, bertan ez baitute ongizate nahikoa lortu oraindik (E7). Gainontzekoek, antzeko balorazioa egiten dute, alegia, lurralde bakoitzak bere erritmoa duela eta ezin dela hori inposatu (E8), eta Iparraldeak, Hegoaldeko baliabideez jabetu eta gero, ezin duela inposatu Hegoaldeak nola jokatu behar duen (E9). Gainera, Hegoaldeko mundu-ikuskerak ingurumena babesten dute, eta, beraz, ez da Iparraldetik inolako ikuspegiarik inposatu behar (E7). Argudio horrek indarra hartzen du Iparraldean erauzketa-enpresen alde egiten jarraitzen dela ikustean (E8). Proiektuak tokiko testuingurura moldatu behar dira. Izan ere, alde batetik, testuinguru guztietan ez da Iparraldean pentsatu ohi dugun moduko hazkunde ekonomikoa bilatzen, eta, bestetik, proiektu batzuek ez dituzte ekoizpeneko elementuak, hortaz, kasu horretan ez du balio Ipar-Hego dikotomia (E9).

Barne elementuak

Esandakoaren ildotik, **GGKE** gehienentzat 2030 Agenda ez da **esparru kontzeptual** egokia, eta, horregatik, zenbait erakundek ez dute hura kontuan hartzen proiektuak diseinatzeko (E2, E6), eta beste ikuspegi batzuekin lan egiten dute (E2). Hala

ere, erakunde batzuek erreferentzia instituzional gisa erabiltzen dute, proiektuak justifikatzeko, baina hura beste paradigma batzuekin osatzen dute (E3, E5). Erakunde batek, gainera, beste arazo bat ikusten du; hain zuzen ere, hura esparru kontzeptual zabalegia dela uste du proiektuetan lantzeko, beraz neurri batean soilik lantzen du (E1).

Hala, erakundeek askotariko moduetan txertatzen dute ingurumen iraunkortasuna. Kasu batzuetan, erakundeek ez dute proiektuen esparru kontzeptuala aldatzen, baina ingurumen arloko elementuak sartzen dituzte, bai 2030 Agendakoak (E4), edo bai teoria disruptiboago batzuetakoak, hala nola ekofeminismokoak, desazkundekoak eta iraunkortasun sendokoak (E6). Beste kasu batzuetan, 2030 Agenda ez diren beste paradigma batzuekin lan egiten da, baina modu osagarrian: ingurumen justizia (E3), gizarte eta ingurumen justizia (E5) eta guztion etxearen zaintza (E5). Azkenik, proiektu batzuetan paradigma alternatiboekin eta disruptiboekin lan egiten dute: Naturaren Eskubideak (E2), Bizitze Onaren Helburuak (E2) eta ekofeminismoa (E2, E5).

Paradigma aldatzeko proposamen bat ez da erraza funts publikoak eskuratzeko deialdietan parte hartzen duten proiektuen kasuan. Ondorioz, kasu askotan **ingurumen ekintzak** bakarrik sartzen dira. Esan bezala, erakunde batzuek beren jardueran ingurumen iraunkortasuna transbertsalizatzen dute (E2, E5), eta, baten batek, ezin duenean ikuspegi hori transbertsalizatu, erreferentzia gisa beste ikuspegi batzuk erabiltzen saiatzen da, hala nola ekonomia sozial eta solidarioa (E4). Ikuspegia transbertsalizatzear gain, zenbait erakundeek ingurumen krisiaren kausei aurre egiteko lan egiten dute (E5). Beste zenbaitek, ikuspegia transbertsalizatu ordez, proiektua tokiko testuingurura eta beren baliabideetara moldatzea hautatzen dute. Azken finean, zenbat eta kontrol handiagoa izan alderdiek proiektuan, orduan eta iraunkorragoa izango da (E6). Aitzitik, beste GGKE batzuek ez dituzte beti horrelako elementuak sartzen; tokiko lankideak hala eskatzen duenean soilik egiten du erakundeetako batek (E3), eta beste batek onartzen du ez dituztela baliabide nahikoak (E1).

Halaber, ekintzak honen menpe daude: hain zuzen, proiektuak nazioarteko lankidetzakoak edo GEHkoak diren. Proiektuen izaerak berak prestakuntzakoak ez diren ekintzak sartzea zailtzen du (E1, E2, E5), baina erakunde batzuek beste mundu-ikuskerak batzuk sartzen dituzte, horrelako proiektuetan nagusi den garapenereduekin hausteko (E2). Beste izaera bateko ekintzen artean, basoak leheneratzeko ekintzak (E1) edo kontzientziazioko, ikerketako eta eragin politikoko ekintzak (E5) aurkitzen ditugu. Lankidetzako proiektuen kasuan, erakundeek ingurumen ekintzak sartzeko zailtasunak dituzte, ezagutza faltagatik, baina horiek sartzen saiatzen

dira, esate baterako, sukaldaritza ekologikoko tailerrak, lurraldeen eta lurraren eskubideen urraketan salaketa, eta prestakuntza (E3). Hala ere, zenbait erakundek edozein izaerakoak diren baina ingurumen ikuspegia transbertsalki txertatzen duten proiektuak gauzatzeko ezagutza nahikoa dute, hala nola emakumeen osasunari eta ahalduntzeari buruzkoak (E2); elikadura segurtasunari, erakundeak indartzeari edo emakumearen ahalduntzeari buruzkoak (E4); ur saneamendukoak, prestakuntza eta gaikuntzakoak, jarduera ekonomikoak sustatzekoak eta eragin politikokoak (E6). Izan ere, erakunde batzuek ingurumen inpaktuko ikerketak ere egiten dituzte, beren proiektuen inpaktua murrizteko (E4).

Hala eta guztiz ere, erakundeek beren proiektuen ingurumen **emaitzak neurtzeko** zailtasunak dituztena onartzen dute (E1, E3, E5). Proiektuetako askok epe luzeko eragina izan nahi dute, eta, beraz, epe luzean ingurumen emaitzak neurtzea errazten duen esparru bat egin beharra dagoela uste dute (E2), baita beste izaera bateko proiektuetan ere (E4).

Erakundeek, oro har, ez dute interes handirik adierazten ingurumen ikuspegiari buruzko prestakuntzen inguruan. Batzuek diote ez dutela, oro har, **prestakuntza** gehiagorik behar (E3, E4, E5); baina, aldi berean, ingurumen iraunkortasunaren txertaketari buruzko esperientzia positiboak partekatzeke prestakuntza experimental batean parte hartuko luketela onartzen dute (E4, E5). Beste batzuek interesa adierazten dute paradigma hegemonikoaren ordez paradigma disruptiboren bat lantzen duten prestakuntzen inguruan, edo beste mundu-ikuskerara batzuk eskaintzen dituzten prestakuntzen inguruan (E2, E6). Prestakuntzek erakundeen arazoak konpontzeko eta haien premiak betetzeko helburua izan behar dute (E5).

Erakunde gehienek begi onez ikusiko lukete eragileen artean ezagutza eta esperientziak partekatzeke **plataforma** bat sortzea. Hain zuzen, ekonomia sozial eta solidarioaren arloko plataforma arrakastatsu bat hartzen dute erreferentetzat, eta interesgarri ikusten da ingurumen ikuspegiaren inguruan horren antzeko zerbait egitea (E1). Izan ere, erakundeek hainbat proposamen egin zituzten balizko plataforma horren inguruan (E2, E4, E5, E6): hausnarketa piztea; partekatzeke baliabideen banku bat izatea; sektorearen jarduketak hobetzen dituzten praktikak eta esperientziak partekatzeke gune bat izatea; lankidetzan ingurumen iraunkortasuna monitorizatzen duen erakunde-sare gisa funtzionatu ahal izatea, meatzaritzaren nazioarteko sarean gertatzen den antzera.

GGKEek bezala, **administrazio publikoek** proiektuen **emaitzak** neurtzeko zailtasunak aipatzen dituzte. Administrazio batzuek ez dituzte baliabide nahikoak eta gaur egun erabilitako metodoak zalantzan jartzen dituzte; esate baterako, hegazkinez bidaiatu

behar izatea proiektuen emaitzak tokian neurtzeko (E8). Halaber, haien ustez, klimaren inguruko kontzientziazioa handitu da, baina horrek ez ditu ingurumen inpaktuak espero zen neurrian murriztu. Hortaz, etorkizunera begira, inpaktu horiek murriztea da erronka (E9).

Ingurumen ikuspegiari buruzko **baremazio** irizpideei dagokienez, administrazioetako batek haien garrantzia azpimarratzen du eta derrigorreko elementu izan behar direla adierazten du (E7). Aitzitik, beste administrazio baten ustez, baremazioko aldaketak arazo bat dira GGKEentzat, beren jarduteko modua aldatu behar dutelako (E9). Gainera, baremazioko aldaketa horiek prestakuntzarekin batera egin behar dira, eraginkorrak izan daitezten eta helburuak bete ditzaten.

Administrazioetako batek onartzen du lankidetzaren arloak gero eta funts publiko gutxiago dituela, eta horrek prestakuntzak egitea oztokatzen duela (E7). Beste administrazio batek, funts falta salatzeaz gain, prestakuntzak antolatzeke edo jasotzeko denborarik ere ez dagoela adierazten du (E8).

Ezagutza partekatzekeo **plataforma** bat sortzeari dagokionez, Gipuzkoan badago Lankidetzza Mahaia izeneko ekimen bat. Horretan, lankidetzako erronka desberdinak lantzen dira, eta haren funtzionamendua birdiseinatzekeo eta horrelako elkarrizketak jorratu ahal izatekeo lan egiten ari da. Eusko Jaurlaritzak ere horrelako plataformak ditu, hala nola lankidetzaren erronkak urtero partekatzekeo eremu bat, baina ingurumenaren kontua ez da orain arte lehentasun bat izan. Gainera, Eusko Jaurlaritzak sailen parte hartzea duen Kontseilu Errektorea du, baina ez lankidetzak ez ingurumen iraunkortasunak ez dute garrantzi handirik horretan. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak ere ezagutzak partekatzekeo eremuak sustatzen ditu. Administrazioen ustez ez dago plataforma berriak sortzekeo beharrik, hainbat funtzio baitaude termino horietan (E7, E9), eta zenbait GGKEk, gainera, antzeke ekimenak sustatzen baitituzte.

Funts publikoei dagokienez, administrazio batek salatzen du, oro har, lankidetzara bideratutako funtsak gero eta gutxiago direla. Hortaz, beste sail batzuekin lan egiten ari da lankidetzaren arlokeo proiektuak garatzeko, eta horrek, bada, haren eginkizuna zailago egiten du neurri handi batean (E7). Udal eta autonomia mailako administrazioentzat, funtsak handitzea ez da erabakigarria ingurumen iraunkortasuna txertatzeko edo finantziazio lerro espezifikoko bat sortzekeo. Hortaz, ingurumen ikuspegia txertatzen duten dimentsio anitzeko proiektuak bultzatzen jarraitu behar da (E8, E9). Eta, horretarako, prestakuntzaren beharra azpimarratzen da, ingurumen ikuspegia proiektuetan behar bezala transbertsalizatzekeo (E9)

Potentzialtasunak

Azkenik, lankidetzaren sektorea hobetzeko modua aztertzen da, ingurumen iraunkortasuna txertatzeari dagokionez. Zentzu horretan, **erakundeek** honako **proposamen** hauek egin dituzte:

- Prestakuntza sustatzea, baina erabilitako paradigma disruptiboa izan behar da benetan eraginkorra izateko.
- Ikuspegiaren transbertsalitatea sustatzea, eta hura exijitzea finantziarioa emateko. Erakundeek ezagutza ikuspegia transbertsalizatzeko erabiltzea.
- Lankidetzaren sektoreaz kanpoko eragileekin ezagutza-sareak sortzea, ingurumen ikuspegia lankidetzan transbertsalizatzeko behar den ezagutza eskuratzeko.
- Paradigma aldaketa sustatzea, ingurumen ikuspegia transbertsalizatzeko.
- Administrazio publikoaren beste esparru batzuetan politika publikoen koherentziako ikuspegi bat ezartzea, esparru bateko ahaleginak beste esparruek mugatu ez ditzaten.
- Erakundeek barne diagnostiko bat egitea, ingurumen ikuspegiaren txertaketaren ahultasunak ezagutzeko.

Erakundeek **GFari** zuzendutako zenbait **proposamen** ere egin dituzte, hain zuzen, honako hauek:

- Prestakuntza handiagoa, ingurumen arloan inpaktu eraginkorragoa izateko.
- Paradigma disruptiboagoak txertatzeko lan egitea, hala nola Naturaren Eskubideak, eta arbasoen ezagutza sustatzea.
- Lankidetzaren alde egitea, jardueretarako eta proiektuetarako finantziario handiagoa emanez.
- Eragin handiagoko tresnak sortzea; finantziario nahikoa eta epe luzekoa ematea.
- Politika publikoen koherentziako ikuspegia sustatzea administrazioaren eremu guztietan.
- Enpresa transnazionalen jarduera lantzea; izan ere, haiek benetako inpaktua izan dezakete ingurumenaren narriadurari aurre egiteko.
- Digitalizazioa eta kapitalismoa berdea problematizatzea.

Beste alde batetik, proiektuen **finantziario deialdiek** Iparraldeko eta Hegoaldeko proiektuak *grosso modo* bereizten dituzte. Hortaz, deialdiek horrela jarraitzen duten bitartean ez da Ipar-Hego dikotomia desagertuko (E3, E5). Ildo horretatik, estrategia globalak diseinatzeko tresna bat sortzea ere proposatzen da (E5). Izan ere, proiektuetako ekintzak toki bakoitzeko egoerara moldatu behar dira eta, hortaz, ezin da toki guztietan berdin jokatu (E4, E5, E6). Hala ere, proiektuetako batzuk sektorialki batu daitezke, hala nola hezkuntzan edo uraren sektorean (E6).

Energiaren eta baliabide naturalen arloko esku-hartze eskasari dagokionez, horiek sektore globalizat hartzen dira eta lankidetzak proiektuek *mikro* izaerako sektoreak lantzen dituzte. Beraz, zaila da sektore horietan jardutea (E4), eta, gainera, baliabide gehiago behar dira horretarako (E5). Hala, jarduera horien ondorioei buruz kontzientziatzeko zailtasuna ere arazo bat da (E6). Zenbait erakundek sektore horiekin zerikusia duten ekintza puntualak txertatzen dituzte, eta jarduera horiekin kritikoa den herritartasuna sortzeko lan egiten da. Halaber, zenbait sektoretan *mikro* maila batean esku hartzen hasi dira, esate baterako, energia komunitateak sortuz (E4). Beste alde batetik, erakunde batek meataritzaren arloko eragin politikoko nazioarteko sare batean parte hartzen du, baina, haren esanetan, zaila da benetako eragina izatea (E5). Azkenik, beste erakunde baten ustez, GGKEek enpresekin lan egin behar dute sektore horietan benetako inpaktua izateko (E6).

Azkenik, Hegoalde globalean ingurumen krisiaren efektuak nabariak direla diote erakundeek. Izan ere, klima krisiaren efektuak gero eta sakonagoak eta sarriagoak dira bertan. Horrek, bada, lehenbailehen jarduteko premia erakusten du (E4, E5, E6).

Administrazioek ere Iparraldean eta Hegoaldean jarduteko modu desberdinen gaia landu dute. Batek testuinguru biak lotzeko lan egiten duela dio, GEHko proiektuen bitartez (E8). Bestalde, (H)ABIAN estrategiak GEHko proiektuak erakunde publikoekin lotu nahi ditu, proiektu guztiek norabide bera izan dezaten (E9).

Administrazioek **energiaren eta baliabide naturalen gaia** ere lantzeko zailtasunak daudela onartzen dute. Batek onartzen du ez dituela arlo horiek lantzen, baina proiektuetan kontu handiagoz jokatzeko ari direla erabiltzen diren materialekin (E7). Beste baten ustez, gai horiek lantzeko premia dago, eta, hortaz, gai horiek unean-unean lantzen ari dira. Hala ere, tokiko lankideek horrelako jarduerak burutzeko arazoak izan ditzaketela ohartarazten du, ez baitituzte horretarako behar diren ezagutzak (E9).

Beste alde batetik, **politika publikoen koherentzia** *paperean* lantzen da, baina beste sail batzuekin batera egiten diren zenbait proiektutan ere lantzen hasi dira (E7). Administrazioetako bat zentzu horretan lan egiten saiatu da, baina ez omen du ezer lortu (E9). Administrazio horren lankidetzaz-saila ahula da baliabideei dagokienez, ingurumen iraunkortasuna lantzen ez duten beste sail batzuekin alderatuta. Azken horiek, bada, iraunkortasunaren arloan benetako aldaketa bat sustatzeko gai izan zitezkeen.

Administrazioek onartzen duten bezala, **aurrekontu publikoen % 0,7** lankidetzara bideratzeko konpromisoa ez da betetzen ari (E7, E8). Administrazio batek ere ez du betetzen, eta ehuneko txikiagoa da urtetik urtera. Haien ustez, egoera hori benetako bultzada politiko baten bitartez soilik alda daiteke.

Azkenik, administrazioek **etorkizunerako erronkak** ere identifikatzen dituzte, ingurumen iraunkortasuna lankidetzan gehiago txertatzeko. Honako hauek dira identifikatutako erronkak:

- Beste sail batzuekin lan egitea, ingurumen ikuspegia lantzen duten proiektuak egiteko.
- Proiektuen jarraipena egitea, horien emaitzak neurtzeko.
- Herritarren aurkaritzari aurre egitea.
- Proiektuei egonkortasun handiagoa ematea, denborari eta finantziarioari dagokienez.
- Ingurumen ikuspegia mota guztietako proiektuetan txertatzeko gidak egitea, proiektuak diseinatzen dituzten erakundeentzat eta baremazioa egiten duten administrazioentzat lagungarriak izango direnak.



5. Emaidzak



Kapitulu honetan emaitza nagusiak jasotzen dira, ingurumen iraunkortasuna Gipuzkoako garapenerako lankidetzan duen txertaketaren balorazio orokor batekin batera. Gainera, AMIA azterketa (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak) ere egin dugu. Haren matrizeak emaitzetako eta egindako balorazio orokorreko elementurik nabarmenenak jasotzen ditu.

5.1. Emaidzak eta balorazio orokorra

Lankidetzaren trantsizio-une batean dago, testuinguru global interdependente batekin markatuta eta etengabeko eraldaketei lotuta, hala nola eraldaketa ekologikoei eta klimatikoei. Onartu berri den **Lankidetzarako eta Elkartasunerako 3/2024 Legeak** hori adierazten du bere zioen azalpenean, eta oso elementu nabarmenak jasotzen ditu bere artikuluetan, ekologia eta iraunkortasun gaiak garrantzi handiagoa izan dezaten euskal lankidetzan. Beraz, joera aldaketa bat ikusten da, iraunkortasun sozio-ekologikoari eta ingurumen justiziarik garrantzi handiago ematen dien diskurtso baten alde. Halaber, politika publikoen koherentziaren aldeko jarrera argiago bat ere atzematen da, eta horrek politika horien alde ekologikoa indartzen lagundu beharko luke.

Legearen diskurtso *ekologistago* hura eta GGKE askoren eta administrazio publikoen lana balio handiko elementuak dira “lankidetzaren eraldaketa ekologiko” baterako. Halaber, euskal GGKEen eta, oro har, lankidetzaren sektorearen esperientzia eta erresilientzia baloratu behar dugu, burututako ekimenen eta eraldaketen lidergoari dagokienez; izan ere, aktibo bat izan beharko litzateke ekologia eta iraunkortasun kontuetan. Hori guztia, herritarrek, itxuraz, lankidetzaren aurkako jarrera duten arren, eta diskurtso eraldatzaile horrekin batera arau berriak eta planifikazio tresnak egiten ez diren arren.

2030 Agendak eta GIHeh harremanean jartzen dituzte garapenaren dimentsioak, dimentsio anitzeko izaera unibertsal batekin. Baina ekologiaren eta iraunkortasunaren arloan, GIHeh kontraesankorrak dira, helburu desberdinak aldi berean lortzeko dagoen inkoherentzia teorikoa eta enpirikoa dela eta. Hala, iraunkortasun ahuleko printzipioa nagusitzen da, eta, haren arabera, dimentsio ekonomikoko lorpenek ingurumen arloko atzerapausoak konpentsa ditzakete. Horren adibide nagusia 8. GIHa da (lan duina eta hazkunde ekonomikoa). Horrek, hazkundeari dagokionez, ingurumeneko beste GIH batzuekin talka egiten du, hala nola 13. GIHarekin (klimaren aldeko ekintza) eta 14. GIHarekin (itsaspeko bizitza). 8. GIHari emandako garrantziak, bada, garapen-eredu hegemonikoa sustatzen du, nahiz eta horrek, hazkunde ekonomikoa etengabe bilatuz, krisi ekologiko eta klima krisi globala eragiten duen.

Gipuzkoako araudiak eta plangintza tresnek 2030 Agenda eta GIHeh hartzen dituzte erreferentzia nagusi gisa. Egia da ingurumen iraunkortasuna gero eta gehiago

agertu dela azken urteotan, baina ikuspegi hura lurraldeko arau eta plangintza esparruan gehiago integratzeko aukera dago oraindik. Alde batetik, iraunkortasun ahuleko printzipioa dago, praktikan dimentsio ekonomikoa eta soziala ingurumen dimentsioaren aurretik kokatzen dituen. Hori ahultasun gisa ulertzen da, ekologiari dagokionez. Bestetik, ez Esparru estrategikoak ez Gida Planak ez dute ingurumen iraunkortasuna transbertsalizatzen, kontu horrek lankidetzaren etorkizunerako garrantzi handia hartu badu ere. Jakina, hori ere gabezia bat da. Azkenik, dirulaguntzak emateko Oinarri arautzaileek aurrera egin dute ingurumen iraunkortasuna lankidetzaren proiektuetan txertatzeari dagokionez, baina ikuspegi horren aintzatespena, 2016tik hona, formala izan da, benetakoa baino gehiago.

Beraz, Gipuzkoako araudiak eta plangintza tresnek ingurumen iraunkortasunaren transbertsalitatea neurri handiago batean integratu beharko lukete. Halaber, iraunkortasun sozio-ekologikoarekin eta ingurumen justiziarekin bat egingo badute, diskurtso disruptibo bat barneratu behar dute. Zentzu horretan, lehen aipatutako 2024/3 Legeak hura erreferentzia gisa hartzeko edo, behintzat, horretan inspiratzeko aukera ematen du.

Lankidetzara bideratutako **funts publikoei** dagokienez, azpimarratu beharra dago, lehenik, gaur egun helburu den % 0,7 horretatik urrun daudela. Ehuneko hori, bada, lankidetzaren sektorearen anbizio historiko bat da. Gainera, Lankidetzarako eta Elkartasunerako 3/2024 Legeak, bere 16.3. artikuluan, EAeko Aurrekontu Orokorretako gastu osoaren % 0,7 lankidetzaren eta elkartasun politikara bideratutako dela ezartzen du. Hala ere, 2022an, GFAk egikaritutako aurrekontuaren % 0,08 besterik ez zuen bideratu lankidetzaren proiektuetara. GFAko Kultura, Lankidetzaren, Gazteria eta Kirola Sailak, bere aldetik, egikaritutako aurrekontuaren % 8,24 bideratu zuen⁵. Egoera hori orokorra da, ez soilik GFAREN kasuan, baizik eta gainontzeko administrazioetan ere, eta EAetik kanpo ere.

Ingurumen iraunkortasunaren aintzatespenari dagokionez, aztertutako eremu guztietan (EAE, Gipuzkoako administrazio publikoak, GFA eta Gipuzkoako GGKEak) ondorioak oso antzekoak direla ikusten da funts publikoei buruz egindako azterketan. Lehenik, emaitza nagusi gisa, Ingurumenaren babes orokorraren sektoreak (GLB 410 kodea) presentzia marjinala du, ez baita inoiz funtsen % 1era heltzen. Hura da ingurumen iraunkortasunarekin lotura zuzena duena. Horrek argi erakusten du lankidetzaren bioaniztasunaren eta zerbitzu ekosistemikoen kontserbaziotik urrun dagoela, zentzu zorrotzean; hura ingurumen iraunkortasunerako elementu garrantzitsua den arren.

5 GFAk 2022an lankidetzaren proiektuetara bideratutako funtsak 4.848.156 eurokoak izan ziren, eta GFAko Kultura, Lankidetzaren, Gazteria eta Kirola Sailak eta GFAk egikaritutako aurrekontuak 58,8 eta 5.888 milioi eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. Ikus <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/aurrekontuak-2020-2022> [2024/05/15].

Bigarrenik, oro har, ingurumen iraunkortasuna lehenesten duten proiektuak urriak direla ikusten da. Izan ere, ikertutako arlo guztietan proiektu horiek % 10etik % 15era bitartean kokatzen dira; GFAREN kasuan izan ezik, horretan % 5 baitira. Gainera, ehuneko horiek Ur hornidura eta saneamendua (GLB 140) eta Nekazaritza (GLB 311) sektoreetan kokatzen dira batez ere. Sektore horietan iraunkorrak ez diren proiektuak ere egon daitezke, eta, hortaz, ingurumen iraunkortasuneko izaera duten funtsak ehuneko txikiagoa hartuko dute agian.

Azkenik, Esleitu gabe (GLB 998) eta Gobernu eta gizarte zibila (GLB 151) sektoreetako proiektuak % 60 inguru dira aztertutako eremu guztietan. Hura ehuneko nabarmena da. Aurrekoek ez bezala, sektore horietan ingurumenaren aldetik iraunkorrak diren proiektuak ezkuta daitezke, baina informazio faltagatik ezin izan dugu proiektu horien edukia aztertu.

Beraz, aurreko guztiak aditzera ematen du ingurumen iraunkortasuna ez dela lehentasun bat aztertutako sektoreei bideratutako funtsei dagokionez.

GFAREN deialdietara aurkeztutako lankidetzak **proiektuen edukiaren** azterketatik, honako hauek dira lortutako emaitzak. Alde batetik, bilakaera positibotzat har daiteke, ingurumen iraunkortasunak gero eta presentzia handiagoa baitu 2016az geroztik. Horren kausetako bat 2020ko baremazio aldaketa izan daiteke, horrek eragina izan baitu proiektua onartua edo ez onartua izateko. Hala ere, ingurumen iraunkortasunaren txertaketan hobetzeko aukera handia dago oraindik, izan ere, proiektu gehienetan ikuspegi hori ez da transbertsalizatzen eta ez da nagusia.

Beste alde batetik, ingurumen ikuspegia duten proiektuak, oro har, ez dira *ingurumeneoak* ez diren proiektuetatik bereizten, zeren horiek ere gizarte garapena bermatzeko eta desparekotasunei eta pobrezia aurre egiteko helburua baitute. Hala eta guztiz ere, proiektu gehienek uste dute, ingurumen ikuspegia izan edo ez, ingurumenaren problematika lankidetzaren gaur egungo erronka nagusietako bat dela, nahiz eta gero ez duten kezka hori jarduerara neurri berean eramaten.

Azkenik, aipatu beharra dago tokiko lankidetzako proiektuen eta GEH proiektuen arteko desberdintasunen ondorioz, proiektu bakoitzean egindako jarduerak oso desberdinak direla. Desberdintasun horiek, bada, proiektuen izaerari berari dagozkio. Gainera, GEHko proiektuek Lankidetzakoek baino neurri handiagoan txertatzen dute ingurumen iraunkortasuna; esate baterako, ikuspegi hura lehentasunezko helburu gisa sartzan dutelako askotan.

GGKEei egindako inkesta eta eragileei egindako elkarrizketak aztertzean emaitza garrantzitsuak ikusten ditugu ingurumen iraunkortasuna bultzatzeko moduari dagokionez.

Lehenik, erakundeek ez diote garrantzi handirik ematen proiektuen baremazioko ingurumen betekizunari, baina garrantzi handiagoa ematen dioten ingurumen kontzientziari berari, eta hura GGKEen estrategietan ageri da. Beraz, pentsatzekoa da baremazio aldaketak bilatu beharrean kontzientziazioa lantzen jarraitzea dela garrantzitsuen.

Bigarrenik, oro har, lehentasun sozial eta ekonomikoak izaten dira nagusi, ingurumenaren gainetik. Izan ere, ingurumenekoak ez diren beste dimentsioek eragin handiagoa omen dute pertsonen ongizatean. Hala ere, ingurumen ibilbide handiagoa duten GGKEen ustez, ingurumen iraunkortasuna sustatzea ez da bateraezina gai sozial eta ekonomikoak lantzearekin. Hala, erakunde batzuentzat ekologia eta iraunkortasun arloko benetako aldaketa bat lankidetzaz-eredu aldaketa baten eskutik etorriko litzateke. Hala ere, zenbait erakunderentzat 2030 Agenda eta GIHak dira oraindik gaur egungo erreferentzia kontzeptualak. Halaber, erakundeek berek aitortzen dute ingurumen iraunkortasuna baino lehentasunezkoagoak diren beste ikuspegi batzuk daudela, hala nola emakumeen eskubideak eta giza eskubideak.

Hirugarrenik, horrelako ekintzarik ez badago ingurumen iraunkortasuna proiektuetan txertatzeko moduari buruzko ezagutza faltagatik da, bai erakundeek ez dutelako ezagutza nahikorik eta bai finantziario-deialdiek berek ez dutelako argi adierazten hura nola landu. Hala ere, erakundeek jarduera hobetzeko interesa adierazi dute ingurumen iraunkortasunari dagokionez, baina honako hauek eskatzen dituzte araudian jasotako ikuspegia ahalik eta gehien integratu ahal izateko: ikuspegi hura integratzen laguntzeko prestakuntza, lankidetzako eragileek osatutako aliantza sare bat eta finantziario handiagoa.

Azkenik, lankidetzatik baliabide energetiko eta naturalen erabileraren gaia lantzea etorkizunerako erronka bat da, hori garrantzitsua baita ingurumen inpaktuei eta ingurumen iraunkortasunari dagokienez. Beraz, kontu gakoa da eta beste modu batean landu beharko litzateke, gaur egungo lankidetzaz-ereduak ez baitu hura modu koherentean integratu. Energiaren eta baliabide naturalen garrantziak, iraunkortasuneko terminoetan, lankidetzaren esparrua gaintzen du, eta administrazioen politika publikoen koherentzian eragiten du.

5.2. AMIA azterketa

Hemen aurkeztutako AMIA azterketak (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak) egindako diagnostikoa eta egin berri dugun balorazio orokorra osatzen ditu. Azterketak Gipuzkoako lankidetzaren sektoreko erabakietarako eta plangintzarako lagungarria izan nahi du. AMIA matrizeak (14. taula) egindako azterketatik sortutako elementu nagusiak laburbiltzen ditu.

14. Taula. AMIA matrizea (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak)

Indarguneak	Ahuleziak
<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzako hainbat eragilek ingurumen iraunkortasuna gehiago integratzearen aldeko jarrera dute • Hainbat GGKE ekologiaren gaiaren inguruan kontzientziatuta daude • GGKE askok sektorean esperientzia dute eta erresilientzia dute • Ingurumen iraunkortasunaren ikuspegiak presentzia nabarmena du GEHko proiektuetan 	<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzara oro har bideratutako funts publikoak urriak dira • Ingurumeneko izaera duten proiektuetara bideratutako funtsak urriak dira • Funts publikoen orientazioan dagoen aniztasun sektoriala eskasa da • Lankidetzako proiektuetako ingurumenaren transbertsalizatzea eskasa da • Ekologia eta iraunkortasun arloan ezagutza teknikoak falta dira • Itxuraz harreman gutxi dago GGKEen eta erakunde ekologisten artean • Hegoalde globaleko premia sozioekonomikoak lehenesteko joera dago • Ekologia eta iraunkortasun kontuei buruzko hausnarketa-eremu kolektiboa falta da sektorean
Aukerak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> • 3/2024 Legeak abagune berri bat zabaldu du hiru eremu hauetan gutxienez: <ol style="list-style-type: none"> (1) diskurtso berritua; (2) finantziazioa; (3) sektore publikoaren eginkizuna. • Hegoalde globaleko lurraldeek ingurumen kontzientzia esplizitua dute • GGKEen Koordinakundearen Plan Estrategikoaren diskurtsoa eta orientazioa • Lidergoa eta abangoardia EAEko lankidetzaren sektoreko ideia eraldatzaileetan • Zenbait GGKEren postulatu eraldatzaileak onartzen dira 	<ul style="list-style-type: none"> • Krisi ekologiko globala lankidetzaz kanpoko kontuekin lotuta dagoelako ideia dago (adibidez, energia, baliabide naturalak, klima aldaketa, etab.) • Lankidetzaren sistemak ez ditu Iparralde eta Hegoalde globalaren arteko harreman ekologiko desparekoak lantzen • Hegoalde globalean, GGKEen lankide gutxi daude ingurumen iraunkortasunean espezializatuta • 2030 Agenda mugatua da krisi ekologiko globalari aurre egiteko • Politika publikoek ez dute koherentziarik ingurumen kontuetan



6. Ondorioak eta gomendioak



Kapitulu honetan egindako lanaren ondorioak jasoko ditugu, baita ingurumen iraunkortasuna Gipuzkoako lankidetzako jarraibideetan eta politiketan txertatzeko hainbat gomendio ere, proposiziozko izaera dutenak

6.1. Ondorioak

Egindako diagnostikoak erakusten du **ingurumen iraunkortasunaren txertaketa-maila oso mugatua** dela Gipuzkoako garapenerako lankidetzan. Txertaketa-maila baxu horrek talka egiten du ekologiaren eta iraunkortasunaren auziek mundu mailan zein tokiko mailan dituzten erronka handiekin. Beraz, Gipuzkoako lankidetzak politikak erronka horiei aurre egin nahi badie, ekologia eta iraunkortasun ikuspegi batetik **eraldatu** behar da.

Jarraian, ondorio espezifikoak aurkeztuko ditugu, landutako azterketa-eremuen arabera.

Arau eta plangintza esparruari buruz

- EAERI dagokion araudi erreferenteak aurrerapen nabarmena izan du. Hain zuzen, Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legeak aurrekoak baino planteamendu anbiziotsuagoa du ingurumen iraunkortasunari dagokionez. Hala ere, oraindik goiz da haren eraginkortasuna ebaluatzeko, eta ikusteko dago ea bere aplikazioak aldaketarik ekarriko duen zentzu horretan.
- Ingurumen iraunkortasunak EAEko eta Gipuzkoako plangintza tresnetan duen presentzia, oro har, marjinala da. Ingurumen ikuspegia ez da transbertsalizatzen eta, gainera, ingurumen iraunkortasuna iraunkortasun ahuleko printzipioarekin bat dator. Dokumentu horiek, beraz, ingurumen iraunkortasunaren arloko eta gaur egungo ekologia eta iraunkortasun erronken araberrako eraldaketa sakonak egiteko ahalmen mugatua duen diskurtso batean oinarritzen dira.
- Ingurumen iraunkortasunak presentzia handiagoa du Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gida Planean, eta Naturaren Eskubideen inguruko diskurtso baten alde egiten du.
- Ingurumen iraunkortasunak garrantzia hartu du GFAREN dirulaguntzak emateko 2016-2023 aldirako Oinarri Arautzailetan, baina bere presentzia marjinala da oraindik.

Lankidetzara bideratutako funts publikoei buruz

- Gipuzkoako lankidetzaren esparruan, ingurumen iraunkortasunera bideratutako funtsak oso urriak izan dira 2016-2022 aldian. Hain zuzen ere, Ingurumenaren babesera (GLB 410 kodea) bideratutakoak ez dira % 1 era ere heltzen aztertutako eremu guztietan.
- Ingurumen ikuspegidun GLB kodeetako proiektuetara bideratutako funtsak urriak dira aztertutako eremu guztietan: (1) EAEko administrazioek emandakoaren % 15,4; (2) Gipuzkoako administrazioek emandakoaren % 10,2; (3) Gipuzkoako administrazioek Gipuzkoako GGKEei emandakoaren % 12,9; eta (4) GFAk emandakoaren % 4,9.
- Ingurumen ikuspegidun GLB kodeetako funtsak, honako sektore hauetara doaz: Ur hornidura eta saneamendua (GLB 140) eta Nekazaritza (GLB 311). Ingurumen ikuspegidun GLB kodeetako proiektuen zenbatekoari dagokionez, GLB kode bi horiek funtsen % 90 hartzen dute aztertutako eremu guztietan.

Lankidetzako proiektuen orientazioari eta irismenari buruz

- Lankidetzako proiektuen orientazioa eta irismena, oro har, oso mugatua da ingurumen iraunkortasunari dagokionez. Proiektuen ikuspegiari erreparatzen badiogu, oro har, ingurumen iraunkortasuna ez da transbertsala eta ez da proiektu gehienek helburu nagusia.
- Ingurumen iraunkortasuneko ikuspegia duten Lankidetzako proiektuak, oro har, ez dituzte oso helburu desberdinak, gainontzeko proiektuekin alderatuta, eta, hortaz, ez dira salbuespena. Aitzitik, proiektu gehienek bezalaxe, pobrezia eta desparekotasunen aurka borrokatu eta gizarte garapena bermatu nahi dute.
- Ingurumen iraunkortasunak presentzia handiagoa du GEHko proiektuetan Lankidetzako proiektuetan baino, baina haren garrantzi erlatiboa, gainontzeko proiektuekin alderatuta, ez da oso nabarmena.

Lankidetzako eragileen balorazioari buruz

- Lankidetzako eragileen balorazioa, oro har, bat dator gure ondorioekin; hain zuzen ere, ingurumen iraunkortasunaren txertaketa mugatua dela. Hala, erakusten du txertaketa hori baldintzatzen duten kanpo zein barne elementuen azterketak.

- Dena den, ingurumen iraunkortasuna Gipuzkoako garapenerako lankidetzan txertatzeko potentzialtasunak askotarikoak dira, eta etorkizunerako erronka asko dakartzate.
- Oro har, bai GGKEek bai administrazio publikoak aldatzeko borondate handia erakusten dute, ingurumen iraunkortasuna lankidetzan gehiago txertatzearen eta indartzearen alde.

6.2. Gomendioak

Ingurumen iraunkortasuna Gipuzkoako lankidetzan gehiago txertatzeko eta indartzeko gomendioak honako hauek dira:

- Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko **3/2024 legea baliatzea**. Lege horren esparruak iraunkortasun sozio-ekologikoarekin eta ingurumen justiziarekin zerikusia duten ekintzak indartzeko aukera ematen du, batez ere hiru arrazoi hauengatik:
 1. Diskurtso eraldatzailea du iraunkortasun sozio-ekologikoari eta ingurumen justiziarri dagokienez, garapen eredu hegemonikoari aurre egiten baitio. Izan ere, eredu huraxe da krisi ekologikoa eragiten duena: klima aldaketa, bioaniztasuna galtzea, baliabideak agortzea, eta abar.
 2. EAeko Aurrekontu Orokorrek bere gastu osoaren % 0,7 gutxienez lankidetzara eta elkartasun politikara bideratu behar dutela ezartzen du (16.3. art.). Beraz, beste administrazio batzuek bide horretatik jarraitzeko aukera ematen du, eta, hala, iraunkortasun sozio-ekologikoa eta ingurumen justizia indartzeko ekimenetara eta proiektuetara funts gehiago bideratzeko abagunea sortzen du.
 3. Administrazio publikoari garrantzi nabarmena ematen dio, garapen iraunkorrerako politika publikoen koherentziari enfasi berezia emanez.
- GFaren Garapenerako Lankidetzaren 2021-2030 aldirako **Gida Plana egokitzea**, sektoreko gaur egungo joeretara eta mundu mailan gertatzen ari diren eraldaketa sozio-ekologikoetara eta politikoetara. Gainera, oraindik denbora falta da 2030. urterako, hau da, indarrean dagoen Gida Plana bukatzeko, eta, hortaz, egokitzapen hori are beharrezkoagoa da. Beste instituzio eta erakunde batzuen araudia eta/edo plangintza estrategikoak erreferentzia izan daitezke eginkizun horretarako.

- **Proiektuen baremazioa**, termino sozio-ekologikoetan eta ingurumen justiziakoetan, Gida Planaren berrikusketatik etor daitezkeen aldaketa eta/edo doikuntzetara moldatu beharko litzateke.
- **Funts publiko gehiago** bideratzea iraunkortasun sozio-ekologikoa eta ingurumen justizia lehentasuntzat hartzen dituzten lankidetzako eta GEHko proiektuak finantzatzera. Erreferentzia gisa, urtean aurrekontu publikoaren % 0,7 lankidetzara bideratzea ezar daiteke, 3/24 Legeak ezartzen duen bezala. Nolanahi ere, hau bide horretan ahalegin handiagoa egiteko lagungarria izan daiteke.
- Lankidetzako **proiektu-ildo** espezifikoa bat sortzea, **iraunkortasun sozio-ekologikora eta ingurumen justiziara** bideratuta. Haren diseinua eta aplikazioa aurreko esperientzietan oinarritu daiteke, hala nola Bartzelonako Udalaren esperientzian. Proiektu-ildo horrek, alde batetik, iraunkortasun sozio-ekologikoaren eta ingurumen justiziaren arloan jarduerak garatzen direla bermatuko du. Hala, proiektu horiek deialdi orokorren menpe geratzea saihestuko du, horietan oso presentzia txikia baitute. Bestetik, aplikazioaren irismen handiagoa lortzeko, ez litzateke GGKEen lanera mugatuko, eta ekologia eta iraunkortasun gaietan espezializatutako erakundeak parte hartzeko aukera zabalduko litzateke.
- **Eragile osagarriek osatutako proiektuak sustatzea**. Eragileen artean koordinatutako lan horrek ingurumen ikuspegiaren presentzia indartuko luke, lankidetzaren eta iraunkortasunaren sektoreetan ezagutza espezializatuak sartu bitartez. Bi proiektu mota aurreikusten dira:
 1. *Tandem* proiektua. Ideia hori Gasteizko Udaletik dator, eta proiektu-mota hori esperientzia osagarria duten bi erakundek edo gehiagok osatuko lukete. Alde batetik, GGKE batek lankidetzaren arloko ezagutza eta esperientzia ekarriko luke, eta, bestetik, ekologia eta ingurumen arloan espezializatutako erakunde publiko edo pribatu bat egongo litzateke.
 2. Lankidetzaren tekniko proiektua. Horretan, administrazio publikoak bere ezagutza teknikoak GGKEen zerbitzura jartzen ditu hainbat esparrutan (ur hornidura, hondakinen kudeaketa, nekazaritza, etab.).
- **Luzera handiagoko proiektuak** sustatzea. Urteko proiektu kateatuak egin daitezke, hau da, hiru edo lau urteko proiektuak baina urtero finantziario egiaztagarria eta luzagarria dutenak, urte bakoitzean ezarritako helburuen arabera. Proiektuen iraupen handiago horrek jarduerekin jarraitzea erraztuko

luke eta horien eraginkortasuna hobetuko luke, eta proiektuen eraginaren ebaluazioa egiteko aukera gehiago emango lituzke.

- **Proiektuen ingurumen inpaktuaren *ex post* ebaluaziorako** esparru metodologikoa egitea. Horrelako tresna baten bitartez bi zentzutan egin zitezkeen ebaluazioak: (a) iraunkortasun sozio-ekologikoa eta ingurumen justizia helburu nagusi gisa duten proiektuek dakartzaten ingurumen hobekuntzak balioestea; (b) edozein proiektutara lotutako jardueretatik sortutako ingurumen inpaktuak balioestea, kontzientzia sortzeko eta neurri zuzentzaileen bitartez inpaktu hori murrizteko.
- Iraunkortasunaren arloan egin duten ekarpenengatik erreferentetzat hartzen diren proiektuetatik **ikaspenak ateratzea**. Horretarako, lehenik, ingurumen iraunkortasunera bideratutako lankidetzako eta GEHko proiektu jakin batzuk identifikatu beharko lirateke, eta, gero, horiek ebaluatu ondoren, hausnarketa egin eta iraunkortasunaren ikuspegia txertatzen lagundu dezaketen ikaspenak atera beharko lirateke.
- GGKEei eta administrazio publikoetako langileei **prestakuntza espezifiko** eskaintzea. Ikaskuntza eguneratu baterako, prestakuntza horrek iraunkortasun sozio-ekologikoa eta ingurumen justizia landu beharko lituzke lankidetzaren arloan, gaur egungo eztabaidei jarraituz. Halaber, teoria eta interpretazio kontuak zein kontu praktikoak landu beharko lituzke, batez ere, proiektuen formulazioari, garapenari eta ebaluazioari dagokienez.
- **Hausnarketa eremu kolektibo** bat sustatzea, eragileen arteko elkarrizketaren eta harremanaren bitartez. Gipuzkoako Lankidetzeta Mahaia topaketarako eremua izan daiteke, iraunkortasun sozio-ekologikoari eta ingurumen justiziar buruzko hausnarketa kolektiboa bultzatzeko. Hori mintegiak, hitzaldiak, lan-batzarrak eta abar antolatuz egin daiteke, azken batean, arlo horretan hausnarketa kolektiboa egiteko.



7. Erreferentziak eta iturriak



7.1. Erreferentzia bibliografikoak

- ARUNDEL, A. (2023) “How to Design, Implement, and Analyse a Survey”. Edward Elgar.
<https://www.elgaronline.com/monobook-oa/book/9781800376175/9781800376175.xml> [2024/05/24].
- CARRILLO, M. (koord.) (2021) “La nueva cooperación. Una propuesta de política pública para la Justicia Global”. Bartzelona: Icaria.
- CHANCEL, L., PIKETTY, T., SAEZ, E. eta ZUCMAN, G. (koord.) (2022) “World Inequality Report 2022”. World Inequality Lab.
https://wir2022.wid.world/www-site/uploads/2023/03/D_FINAL_WIL_RIM_RAPPORT_2303.pdf [2024/04/15].
- DALAL-CLAYTON, D. B., BASS, S. eta ANTONIO, E. (2009) “The challenges of environmental mainstreaming: experience of integrating environment into development institutions and decisions”. Londres: International Institute for Environment and Development.
- DURAIAPPAH, A.K. (2004) “Exploring the Links: Human Well-being, Poverty and Ecosystem Services”. Nairobi: PNUMA; Winnipeg: IISD.
http://www.iisd.org/pdf/2004/economics_exploring_the_links.pdf [2024/05/24].
- FRERES, C., GARZON, E. , ROMERO, M. eta VALVERDE, A. (2016) “Los 99 términos de eficacia de la ayuda en la cooperación española”. Biblioteca Digital AECID.
https://www.academia.edu/83899283/Otro_t%C3%ADtulo_Glosario_99_t%C3%A9rminos_de_eficacia_de_la_ayuda_en_la_cooperaci%C3%B3n_espa%C3%B1ola [2023/11/17].
- GONZÁLEZ, J.A., MONTES, C., SANTOS, I. eta MONEDERO, C. (2008) “Invirtiendo en capital natural: un marco para integrar la sostenibilidad ambiental en las políticas de cooperación”. *Ecosistemas*, 17(2): 52-69.
- HUANG, Y. eta PASCUAL, U. (2018) “Introduction”, in HUANG, Y. eta PASCUAL, U. (argtz.) *Aid Effectiveness for Environmental Sustainability*. Singapur: Palgrave Macmillan.
- LIAMPUTTONG, P. (2009) “Qualitative Research Methods”. 3. edizioa. Melbourne: Oxford University Press.

- MARCELLESI, F. eta PALACIOS, I. (2008) “Integración de consideraciones de sostenibilidad en la cooperación para el desarrollo”. *Cuadernos Bakeaz*, 88. Bilbo: Bakeaz.
- O’NEILL, D.W., FANNING, A. L., LAMB W.F. eta STEINBERGER, J.K. (2018) “A good life for all within planetary boundaries”. *Nature sustainability* 1: 88-95.
- OECD (2016) “Relaciones globales del CAD”. OECD.
https://www.oecd.org/dac/dac-global-relations/2016_Adhesión_al_comité_de_ayuda_al_desarrollo.pdf [2024/03/22].
- OECD (d.g.) “Purpose Codes: sector classification”. OECD.
<https://www.oecd.org/development/financing-sustainable-development/development-finance-standards/purposecodessectorclassification.htm> [2024/03/22].
- RICHARDSON, K. et al. (2023) “Earth beyond six of nine planetary boundaries”. *Science Advances*, 9, eadh2458.
- UNCETA, K. (2012) “Presente y futuro de la Cooperación al Desarrollo: Entre el debate de la eficacia y las dudas sobre su pertinencia”. *Estudios de Economía Aplicada*, 30-32: 803-810.
- UNCETA, K. (2021) “Informe sobre la Ley Vasca de Cooperación para el Desarrollo”. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
https://www.elankidetzta.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_memorias/es_pubmem/adjuntos/K.UNCETA_informe_ley_vasca_cooperacion.pdf [2024/03/22].
- VICTOR, D. (2018) “Foreign Aid for Capacity Building to Address Climate Change” in HUANG, Y. eta PASCUAL, U. (argtz.) *Aid Effectiveness for Environmental Sustainability*. Singapur: Palgrave Macmillan.

7.2. Legeak eta arauak

Lankidetzta eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua.

Garapenerako Lankidetzarako dirulaguntzak emateko Oinarri Arautzaile orokorrak eta espezifikoak 2016-2023 aldirako.

Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 aldirako IV. Gida Plana.

1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarako eta Elkartasunerakoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako Lankidetzaren Jarduera Esparru Estrategikoa.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gida Plana.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana.

7.3. Datu-iturriak

Eusko Jaurlaritza/eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Hegoa–Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. *Euskal Lankidetzeta Publikoaren Ataria*. <https://euskalankidetzeta.hegoa.ehu.eus/?locale=es> [2024/05/15].

